



ETXEPE

BEREAN



Save the Children

Euskadin sexu-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeei zuzendutako arreta: hobetu beharra eta Barnahus ereduaren ekarpenak

Koordinazioa:

Sara Polo
Emilie Rivas
Charo Arranz Díez

Egilea:

Ignacia Arruabarrena, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU
Sara Polo
Emilie Rivas

Aurreko ikerketaren egileak:

Ignacia Arruabarrena, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU
Sara Polo

Artea eta maketazioa:

Alexandre da Silva


Argitaratzailea:

Save the Children

2021eko iraila

Esker onez: pertsona askok eman digute lan honetarako laguntza eta babesa. Horiei guztiei gure esker ona adierazi nahi diegu, bereziki, aztertu eta gurekin eztabaidatu ondoren eskuzabaltasunez beren ekarpenak egin dizkiguten guztiei. Horien artean daude hauek (ordena alfabetikoan): Consuelo Alonso eta haren taldea (Bizkaiko Foru Aldundia), Fernando Álvarez (Talde Psikosozial Judiziala), Eneida Amas (Gipuzkoako Foru Aldundia), Mónica Arias (Bizkaiko Fiskaltza), Elena Ayarza (Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoa), Blanca Corral (Arabako Foru Aldundia), Elena Daughoum (Gurutzetako Ospitalea), Miguel Ángel Hurtado (Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila, Eusko Jaurlaritzza), Lander Jauregi (Segurtasun Saila, Eusko Jaurlaritzza), Alberto Porras (Gipuzkoako Foru Aldundia), José Luis Quintas (Osasun Saila, Eusko Jaurlaritzza), Sandra Ranea (Segurtasun Saila, Eusko Jaurlaritzza), Jone Solabarrieta (Hezkuntza Saila, Eusko Jaurlaritzza), Iñaki Subijana (Gipuzkoako Probintzia Auzitegia), María Ullate (psikologo espezialista) eta Gema Varona (Kriminologiaren Euskal Institutua, EHU). Eskerrik asko Kataluniako taldeari, Madrilgo Erkidegokoari eta Valentziako Erkidegokoari ere, egin duten lanagatik, gidari eta inspirazio-iturri izan baititugu. Mila esker Josep Maria Tamariti, argitalpen honetan lagundu duelako, eta hauei guztiei, lantaldearen zati izan direlako eta beren jakinduria eskaini dutelako txosten honetarako: Sara Gómez, Lydia Serratussell, Josep Niubó, Àngels Renom eta Montse Pintó.





AURKIBIDEA

11 GAUR EGUN EUSKADIN HAURREN ETA NERABEEN KONTRAKO SEXU-INDARKERIARI EMATEN ZAION ERANTZUNA

Arazo izugarria, baina oso ezezaguna

Arreta-ibilbide nahasia

Haurraren eta nerabearen interes gorena bermatzen ez duen prozesu judiziala

36 ZER DA BARNAHUS EREDUA?

Children's Advocacy Centers deritzenen eredia Estatu Batuetan

Barnahus eredia Europan

Barnahus kalitate-estandarrak

50 BARNAHUS ETXEAK EUSKADIN

Barnahus etxeak Euskadin: zer ekarpen egin dezakete?

Barnahus etxe baten proposamen pilotua Euskadin

69 GOMENDIOAK

SARRERA

Haurren eta nerabeen aurkako sexu-indarkeriaz dihardugunean, berandu dator prebentzioa ez den beste edozer, haurrak edo nerabeak abusua jasan ondorengoa baita.

Baina inoiz ez da beranduegi; izan ere, horrelako egoera beldurgarri baten aurrean, funtsezkoa da biktima izan diren hurrei edo nerabeei eskaintzen zaien esku-hartzearen kalitatea, leheneratu daitezen.

Zoritxarrez, Estatuan nahiz Euskadin haur eta nerabe horiei zuzentzen zaien arreta-sistema gertutik aztertzen badugu, ondorio argia aterako dugu: gaur egun arazo horri ematen zaion erantzuna ez dago dagokion mailan, eta, babes eraginkorra eman beharrean, prozesu luze eta konplikatu bat pasarazten zaie; horrek ez die suspertzen laguntzen, inondik inora ere.

Zerbitzu ugari daude haur eta nerabeak artatzeko, baina suspertzen lagundu eta ekarpena egin beharrean, **kendu egiten die gehiago indarrean den sistemak.**

Euskal gizarteak izugarritzko bilakaera izan du arazo honi heltzeko orduan. Lehen pausoa minaren aurrean begiak ez ixtea izan zen, eta honako hau esatea ozen: **“Haur eta nerabeen aurkako sexu-indarkeria existitzen da!”** eta, horrela, biktimak artatzeko baliabideak sortu ziren.

Hala ere, beste pauso bat eman beharra daukagu, pauso erabakigarria, haur eta nerabe horiek eraginkortasun osoz babesteko. Eman dute herrialde askotan jada; sexu-indarkeriaren ondorioei erreakzio modura erantzuteari utzi zioten, eta jarrera eta egitura proaktiboak hartu zituzten arazo horren aurrean.

Bigarren etapa horrek lankidetzaz sendoa bat eskatzen du, horrelako kasuekin lotuta dauden erakunde eta sektoreen arteko lankidetzaz sendoa. Estatu Batuetan eta Europako hainbat herrialdetan, elkarrekin lan egiten dute **justizia-sailak, segurtasun-sailak, haur eta nerabeak babesteko sailak eta osasun-sailak; etxepe berean lan egiten dute, sexu-indarkeriaren biktima izan diren hurrei eta nerabeei** ahalik eta arretarik onena, azkarrena, koordinatuena eta eraginkorrena eskaintzeko eta, horrela, haiei lehengoratzen eta suspertzen laguntzeko. Eta iritsi zaigu horretarako unea Euskadin: erdigunera ekarri behar ditugu haurrak eta nerabeak, eta indarrean den sistema aldatu behar dugu, **haien beharretarako egokiena eta eraginkorrena dena egin ahal izateko.**

Save the Childrenen, ezin gara gelditu besoak antxumatuta haur eta nerabeen sufrimenduaren aurrean; irtenbideak ekarri nahi ditugu sufrimendua arintzeko. Biktimak artatzeko orduan beste herrialde batzuetan abian jartzen ari diren praktikarik onenak identifikatzeko ardura hartu dugu geure gain. Eta aurkitu egin ditugu. Hementxe aurkezten dizkizuegu.

Zer da sexu-indarkeria, eta zer ondorio ditu?



Haurren eta nerabeen kontrako sexu-indarkeriak askotariko formak hartu izan ditu. Gehien-gehienetan, indarkeria hori erabili dutenak ez dira ezezagunak, haurren edo nerabearen inguru hurbilekoak dira. Azken urteotan, sexu-biktimizazioarako¹ agertoki berri bihurtu dira sare sozialak.

Sexurako adostasun-adina 16 urtekoa da Espainian, Zigor Kodean jasotzen denez. Adin horretatik beherakoekin sexu-harremanak izatea delitua da, non eta ez diren adinez eta heldutasun eta garapen mailari dagokionez gertukoia den norbaitekin adostutako harremanak.

¹ Sexu-abusuak zer diren eta zer ez edota zer sintoma eta ondorio dituzten jakiteko eta sakonago aztertzeko, ikusi: Save the Children (2017). Ojos que no quieren ver. Madril: Save the Children, Espainia.

Sexu-indarkeriak biktima diren haur eta nerabeengan eta horien familiengan dituen ondorioak

Sexu-indarkeria **arrisku-faktore** bat da, eta haurtzaroan, nerabezaroan nahiz helduaroan arazo psikologikoak, portaerazkoak, pertsonartekoak eta osasunekoak agertzearekin lotuta egon daiteke; areagotu egiten du, gainera, **ondorengo biktimizazio-arriskua ere** (ondorengo biktimizazio-arriskua ere).²

Dena den, haurtzaroan edota nerabezaroan sexu-indarkeriaren biktima izatea eta arazo esanguratsuak agertzea ez daude ez zuzenean eta ez ezinbestez lotuta. **Haur eta nerabeengan indarkeriak duen eragina hainbat faktoreren mende dago**, eta kontuan hartzekoak dira, beraz, norberaren zaugarritasun-faktoreak edo testuingurukoak, jasandako indarkeriaren izaera edota inguruak emandako erantzuna nahiz babesa, esaterako.

Egindako azterketetan iradokitzen denaren arabera **biktima diren haur eta nerabeen % 20-30 “erresilienteak” dira**, hau da, funtzionamendu egokia izaten jarraitzen dute biktimizazio-esperientziaren ostean. Dena den, hasieran ondorezaren sintomarik agertu ez arren, **esperientzia hori ez da inoiz kaltegabea edo neutroa**.

Zorionez, ikerketak argi erakutsi du gehienek hobera egiten dutela **beren sare naturalak ematen dien babesaren** bidez.

Baina **ondorezaren sintomak biktimizazioa gertatu eta handik denbora batera ager daitezke, handik urte batzuetara askotan**. Hainbat azterlanetan frogatu da, esate baterako, hasieran sintomarik erakutsi ez duten haurrek okerrera egin dezaketela gerora; biktimen % 10-20 inguru okerrago egon daitezke hurrengo 12-18 hilabeteetan.

Horrez gain, **denboraren joanean okerrera egiten duten kasuak aurkituko ditugu (% 10-24 artean) eta, zenbaitetan, kalte larrien sintomak ere ager daitezke**, oro har, aurretiazko zaugarritasun-faktoreen eraginez. Osasun mentaleko arazoak dituzten adingabeak izan daitezke, edo komunikatzeko zailtasun handiak dituztenak, edo aurrez esperientzia larriak eta iraunkorrak, kaltegarriak, traumatikoak edota biktimizazioaren esparrukoak bizi izan dituztenak familia barruan edo kanpoan.

2 Berliner, L. (2011). “Child sexual abuse: Definitions, prevalence, and consequences”. In J.E.B. Myers (Ed.), *The APSAC handbook on child maltreatment* (3. arg. 215–232. or.). Sage. Cantón-Cortés, D. eta Cortés, M.R. (2015). “Consecuencias del abuso sexual infantil: Una revisión de las variables intervinientes”. *Anales de Psicología*, 31, 552-561. or.
Domhardt, M., Münzer, A., Fegert, J.M. eta Goldbeck, L. (2015). Resilience in Survivors of Child Sexual Abuse: A Systematic Review of the Literature. *Trauma, Violence, & Abuse*, 16, 476- 493.
Fisher, C., Goldsmith, A., Hurcombe, R. eta Soares, C. (2017). The impacts of child sexual abuse: A rapid evidence assessment. The Independent Inquiry into Child Sexual Abuse. <https://www.iicsa.org.uk/publications/research/impacts-csa>
Pereda, N. (2009). “Consecuencias psicológicas iniciales del abuso sexual”. *Papeles del Psicólogo*, 30, 135-144. or.
Pereda, N. (2010). “Consecuencias psicológicas iniciales del abuso sexual”. *Papeles del Psicólogo*, 31, 191-201. or.
Pereda, N. eta Gallardo-Pujol, D. (2014). “Revisión sistemática de las consecuencias neurobiológicas del abuso sexual infantil”. *Gaceta Sanitaria*, 25, 233-239. or.

Eta haien familiak?

Sexu-biktimizazioaren esperientziak, biktimengan ondorio negatiboak izateaz gain, ondorio negatiboak ditu familiengan ere, eta **haien bizitzako alderdi guztiei eragin diezaieke, baita pertsonen arteko harremanei eta norberaren egonkortasunari ere, epe labur, ertain eta luzera.**

Semeak edo alabak sexu-biktimizazioa jasan ondorenean, guraso ez-erasotzaileen ehuneko handi batek ondoez emozionalaren eta trauma sekundario edo bikarioen sintoma esanguratsuak garatzen ditu. Horren ondorioz, zail gerta dakieke adingabeari behar duen laguntza ematea, eta horren eraginez, jasandako esperientziari arrakastaz aurre egiteko aukerak murrizten zaizkiola ikus dezake adingabeak.

Anai-arrebengan eta senitartekoengan sexu-indarkeriak zer eragin izan duen horrenbeste ikertu ez den arren, ikusi da haiengan ere eragina izan dezakeela. Ikerketa batzuen arabera, **anai-arrebek biktimen antzeko sintomatologia barneratzen eta kanporatzen dute** -depresioaren eta antsietatearen sintomak barne, eta erru-, nahasmen-edota kolera-sentimenduak ere izan ditzakete.

GAUR EGUN EUSKADIN HAURREN ETA NERABEEN KONTRAKO SEXU- INDARKERIARI EMATEN ZAION ERANTZUNA

Arazo izugarria, baina oso ezezaguna

Sexu-indarkeriak ondorio larriak ditu biktima diren haur eta nerabeen garapenean. Datu ofizialik ez izateak mesede egiten dio sekretismoari, eta zaildu egiten du baliabideak arazo larri hori tratatzera bideratzea.

Ezin da tratatu ikusten ez dena.

Arazoak zer dimentsio dituen EUSKADIN: zer dakigu?

Nazioartean egindako zenbait prebalentzia-azterlanen³ arabera, % **10-20 inguru izan daitezke sexu-indarkeria jasan duten haur eta nerabeak**. Horrez gain, azterlan horiek erakutsi dute ez dutela guztiek biktimizatuak izateko arrisku bera.

Prebalentzia handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino, eta halaxe da zaurgarriagoak diren azpitalde jakin batzuetan ere, behar berezietako haur eta nerabeen azpitaldean, esterako -euren parekoek baino askoz arrisku handiagoa dute, 3-5 aldiz handiagoa-, edo familien babes falta edo zabarkeria jasaten dutenen artean.

Ez dago sexu-indarkeriaren prebalentziari buruzko azterlanik Espainian, baina eskura ditugun datuek antzeko kopuruak erakusten dituzte⁴.

3 Barth, J., Bermetz, L., Heim, E., Trelle, S. eta Tonia, T. (2013). "The current prevalence of child sexual abuse worldwide: a systematic review and meta-analysis". *International Journal of Public Health*, 58, 469–483. or.

Child Welfare Information Gateway (2018). *The risk and prevention of maltreatment of children with disabilities*. U.S. Department of Health and Human Services, Children's Bureau.

Gilbert, R., Widom, C.S., Browne, K., Fergusson, D., Webb, E. eta Janson, S. (2009). Burden and consequences of child maltreatment in high-income countries. *The Lancet*, 373(9567), 68-81. or.

Jones, L., Bellis, M.A., Wood, S., Hedges, K., McCoy, E., Eckley, L., Bates, G., Mikton, C., Shakespeare, T. eta Officer, A. (2012). Prevalence and risk of violence against children with disabilities: a systematic review and meta-analysis of observational studies. *The Lancet*, 380(9845), 899-907. or.

Pereda, N., Guilera, G., Forns, A. eta Gómez-Benito, J. (2009). "The international epidemiology of child sexual abuse: A continuation of Finkelhor" (1994). *Child Abuse & Neglect*, 33, 331–342. or.

Stoltenborgh, M., van Ijzendoorn, M.H., Euser, E.M. eta Bakermans-Kranenburg, M.J. (2011). "A global perspective on child sexual abuse: meta-analysis of prevalence around the world". *Child Maltreatment*, 16, 79-101. or.

4 Pereda, N. (2016). "¿Uno de cada cinco? Victimización sexual infantil en España". *Papeles del Psicólogo*, 37, 127-133. or.

Ezin zaio erantzunik eman fenomeno bati, zer dimentsiotakoa den jakin gabe.



Horrenbeste haur eta nerabe izan dira Euskadin sexu-indarkeriaren biktima? Zer ezaugarri dituzte? Zer-nolako indarkeria jasan dute? Zer bilakaera izan du arazoak?

Ez daukagu erantzunik. Ez daukagu Euskadin arazo honek duen prebalentziari buruzko ikerlanik, ez eta estatistika ofizialik ere, zer dimentsio orokor eta bilakaera izan dituen erakusteko panoramika bat osatu ahal izateko.

Hala ere, nazioarteko prebalentzia-zifretatik abiatuta, estimazio bat egin dezakegu: **azken urtean adinez nagusi izatera iritsi diren 20.000ren bat nerabeetatik, 2.000-4.000 inguruk sexu-indarkeria motaren bat jasan dute beren bizitzan zehar.**

Euskadin haur eta nerabeen kontra izan diren sexu-indarkeria kasuak, hainbat zerbitzuz bildutako datuen arabera:



2018ko datuak

Arazoaren tamainari buruzko daturik ez

Euskadin zenbat sexu-indarkeria kasu gertatzen diren ez jakiteaz gain, ez dakigu horietatik zenbat hautematen diren edota zer ezaugarri dituzten ere. Ez dago erregistro bateraturik. Horrelako haur eta nerabeekin lan egiten duen zerbitzu bakoitzak bere erregistroa dauka. Ez daude guztiak eskuragarri, eta ez dute informazio bera biltzen.

Eskuragarri ditugun datuek **panoramika zatikatua, partziala eta nahasgarria** erakusten digute. Horixe bera gertatzen da beste autonomia-erkidego batzuetan ere, eta datuak eranstea edo konparazioak egitea eragozten du horrek. Ondorio bakarra atera dezakegu: kopuru horiek prebalentzia-azterketetako estimazioetatik oso urrun gelditzen dira.

Isiltasuna etetea

Euskadi, haur edo nerabe batek norbaiti jasaten ari den sexu-indarkeriaz hitz egiten dionean, nahiko konplexua da egin beharreko bidea. Horregatik, ez da horrelako egoeren berri ematen askotan.

Legezko betebeharra izan arren, haurren edo nerabearen inguruko helduek edo profesionalak ez dituzte horrelako egoerak jakinarazten askotan⁵.

Esparru horretan, arazo larrienetako bat **prestakuntza profesionala falta izatea** da.

Honako hauek gehitu behar zaizkio arazoaren ezagutza faltari eta haurren kontrako sexu-indarkeria kasu baten berri izateak eragiten duen nahasmenduari

1

Kontzeptu batzuek zer esan nahi duten eta zer inplikazio dituzten ez jakitea, hala nola susmoak, hautemateak, jakinarazpenak eta salaketak.

2

Abusu-kasu bat ezagutzen duen edo susmoa duen pertsona batek **eragile askorengana** jo ahal izatea.

3

Horien arteko **koordinaziorik eza**.

4

Jarduketa-protokolo ugari eta zatikatuak, haurren eta nerabeen kontratuko sexu-indarkeriaren eta tratu txarren kasuan.

5

Prozesuan nabarmentzen den **argitasun falta**.

6

Sistema judizialean konfiantzarik ez.



⁵ Greco, A.M.; Guilera, G. eta Pereda, N. (2017). School staff members experience and knowledge in the reporting of potential child and youth victimization. *Child Abuse & Neglect*, 72, 22-31. or.

HAUTEMATEA ETA JAKINARAZTEA

Esku hartzen duten eragileak: profesionalak eta biztanleak oro har.


Alderdi positiboak	Hobetu beharreko alderdiak
<p>Jakinarazteko legezko betebeharra</p> <p>Haurren edo nerabeen aurkako indarkeria-egoera baten (sexu-indarkeria barne) berri dutenean edo susmoa dutenean, herritarrak eta profesionalak behartuta daude horren berri ematera, eta berriaz jasotzen da hori haurrak eta nerabeak babesteko Estatuko legedian (13. art., 1/1996 LO, Adigabearen Babes Juridikoarena); indartu egiten da betebeharrak hori Indarkeriaren aurrean haurrak eta nerabeak erabat babesteko Lege Organiko berrian (15. art. eta hur.). Horrez gain, betebeharrak hori jasotzen dute haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko autonomia-erkidegoetako legedietan ere.</p>	<p>Jakinarazteko legezko betebeharra ez betetzea</p> <ul style="list-style-type: none"> • Profesionalek eta, oro har, herritarrek ez dakite beren susmoak jakinarazteko betebeharra dutela; ez dakite honi non eta nola egin ere. Ez dakite jakinarazpenak zer ondorio dituen, eta horrek ere atzera eginaraz diezaieke, maiz pentsatzen baita jakinarazpena egiten duenari prozesu polizial edo judizialean parte harrarazi diezaioketela, edo gizartean egoera zailak bizi beharko dituela. • Zaila da susmo bat izanik ez dela jakinarazi erakustea, eta, horregatik, zigorrik gabe geratzen dira halakoak askotan.
<p>Sexu-indarkeria kasuak eta susmoak hautemateko eta jakinarazteko aukerak indartzeko ekimenak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Udaletako Gizarte Zerbitzu askotan, sentsibilizazio eta sustapen-jarduerak garatzen dira, haurren babesgabetasun-egoerak hautemateko eta jakinarazteko. Horrez gain, GKE eta erakunde askok berriazko jarduerak gauzatzen dituzte arlo honetan sentsibilizatzeko eta haurren eta nerabeen aurkako sexu-indarkeria kasuak hautemateko bideak indartzeko (adib., AVAIM, Save the Children, Bizkaiko elizbarrutia, kirol-erakundeak, beste batzuk). • 2016tik, badago sexu-indarkeria kasuak hautemateko eta jakinarazteko ikastetxeetarako⁶ protokolo bat autonomia-erkidegoan. • Berriki, susmopeko kasuak bahetzeko tresna bat landu da, eta eskuragarri dago herritar eta profesionalentzat; Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak⁷ sustatua. 	<p>Ez dira aski susmopeko egoerak hauteman eta jakinarazteko bideak sustatzeko ekimenak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Udaletako Gizarte Zerbitzuen eta GKE motako erakundeek ekimenak ez dira garatzen autonomia-erkidego guztietan; oro har ez dute eraginkorrak izateko behar luketen jarraitutasunik eta sendotasunik, sexu-biktimizazio mota batzuetan jartzen dute fokua maiz, eta profesionalak zuzentzen zaizkie normalean. Oro har, ez dute nahikoa eragin biztanleengan eta biktima diren edo izan daitezkeen haur eta nerabeengan. • Hezkuntzako zenbait zentrok eta profesionalak ez dute erabiltzen Hezkuntza Sailak onartutako protokoloa, edo ez dute ezagutzen. Beharrezkoa da, halaber, irakasle ez diren langileei protokoloa zabaltzea, horrelako kasuak hautemateko iturri garrantzitsua baitira. • Oraindik ez da abiarazi onlineko screening tresna hedatzeko eta ezartzeko bide orokorrik. • Ekimenak ez dira iristen esparru pribatuko profesionalengana.

Jakinarazten edo salatzen diren kasuak soilik ezagutzen dituzte profesionalak, eta askoz handiagoa den icebergaren tontorra baino ez da hori; abusu-kasu gehienak ezkutuan gelditzen dira eta ez dira inoiz azaleratzen

⁶ Eusko Jaurlaritzak (2016). Hezkuntza-arloko prebentzio- eta jardun-protokoloa, gerta daitezkeen haurren eta nerabeen babesgabetasun, tratatu txar, sexu-jazarpen eta sexu-abusu egoerentarako, eta hezkuntza-arloaren eta adingabeak babesteko esku hartzen duten agenteen arteko lankidetzak eta koordinazioarako. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. https://www.berrigasteiz.com/monografikoak/bizikasi/6002016002e_Doc_EJ_protokoloa_babesgabetasun_e.pdf

⁷ <http://screening.agintzari.com/>

Zergatik ez da jakinarazten haurren eta nerabeen kontrako sexu-indarkeria?



Hauek dira horrelakoak ez jakinarazteko arrazoi nagusiak:

- **Arazoa ez ezagutzea.** Ez profesionalek eta ez herritarrek ez dituzte ezagutzen askotan horrelakoak hautemateko adierazleak, eta ez dira jabetzen jakinarazteak duen garrantziaz.
- **Herritarrek ez jakitea horrelako egoerak salatze**ko betebeharrak zibikoa eta lege-betebeharrak dutela.
- **Norberak bere lanbidean duen erantzukizunaren barnean betetzen duen rolaren pertzepzio okerra,** jakinarazteko ardura beste profesional bati esleituz.
- **Haurraren edo nerabearen familiarengan edo lanpostuan dituen ondorio negatiboak.**
- **Biktimaren familiarekin sor daitezkeen gatazken beldurra,** edo prozesu judizial batean sartzeak ekar diezazkiokeen ondorioen beldurra.
- **Horrelako egoerak familia barruan konpondu behar direla uste izatea,** sexu-indarkeria familia barrukoa denean batik bat.
- **Sistema judiziala ez dela eraginkorra uste izatea,** abusatu duena ez duela zigortuko eta, beraz, biktima beste bide batzuetatik babestea hobe dela pentsatuz.

Arrazoi horiek guztiak oztopo handiak dira haurren eta nerabeen kontrako sexu-indarkeria kasuak jakinarazteko, eta isilpean gordetzen dira askotan horregatik.

Arreta-ibilbide nahasia

SEXU-INDARKERIAKO BALIZKO KASUEN SUSMO ETA JAKINARAZPENAK JASOTZEA ETA HASIERAKO ARRETA EMATEA

Euskadin, 600 sarrera-puntu baino gehiago daude, haur eta nerabeen aurkako sexu-indarkeriako balizko kasuen susmoak eta jakinarazpenak jasotzeko eta hasierako arreta eskaintzeko.

Sarrera-puntu asko izateaz gain, sistema desberdinetakoak dira -osasuna, justizia, gizarte-zerbitzuak, segurtasuna-, eta zerbitzu, talde eta profesional desberdinek esku hartzen dute horietako bakoitzean. **Agente edo eragile horiek egoki edo koordinatua erantzuten ez badute** (zereginak bikoiztuz, haurra edo nerabea eta haren familia beste profesional batzuegana bideratuz), **horrek berak beste kalte bat eragingo dio haurrari edo nerabeari -biktimizazio sekundarioa-** eta biktimizazio primarioak eragindako kalte psikologikoa are gehiago larriagotuko du.

Ezinbestekoa da lantalde, profesional, zerbitzu eta sistema horien guztien jarduketak koordinatzea. Horiek guztiak bildu behar ditu barnean ahaleginak, eta konstantea izan behar du. Ekimen partzialak edo ezegonkorak ez dira eraginkorak izango. Sistemak, osotara, erantzun koherente, azkar eta egokia ematen duela ziurtatu behar da.

Horrenbeste sarrera-puntu izan arren, ustezko sexu-indarkeria kasu bat hauteman ondoren horren berri eman dezaketenek -gurasoak, adingabearekin harremanetan dauden profesionalak, herritarrak, biktimak- ez dute jakiten askotan nora jo edota zer gertatuko den susmoaren berri ematean, edo nahasmena sortzen die kontu horrek.

Hainbeste agente egoteak ez du oztopo izan behar haurren eta nerabeen aurkako indarkeria-kasuak aurkitzeko eta horien aurrean jarduteko. Esparru koordinatu bakar batean egon behar dute horiek guztiek, haurrei eta nerabeei berehalako erantzun eraginkorra eman ahal izateko.

Behar-beharrezkoa da hobetzen jarraitzea, biktima diren haur eta nerabeei zuzentzen zaien arreta guztia birbiktimizazioaren prebentziora bideratzeko eta, horrela, suspertzen laguntzeko, hasieratik bukaeraraino.




ZER PROFESIONALENGANA ETA ZER ZERBITZUTARA JO DAITEKEEN HAUR EDO NERABE BATEN KONTRAKO SEXU-INDARKERIA KASU BATEN SUSMOA DUGUNEAN⁸

SEGURTASUN-INDAR ETA KIDEGOAK




JUSTIZIA-SISTEMA



OSASUN-SISTEMA



GIZARTE-ZERBITZUEN ETA HAURRAK ETA NERABEAK BABESTEKO ZERBITZUEN SISTEMA



8 Kasu askotan, agente hauek ere hauteman ditzakete sexu-indarkeria kasuak, hala nola osasun-sistemak edo gizarte-zerbitzuek. Osasun Sistemaren barnean dauden Haur eta Gazteen Osasun Mentaleko Zerbitzuak.

SUSMOAK ETA JAKINARAZPENAK JASOTZEA

Esku hartzen duten eragileak: osasun-sistema, sistema judiziala, gizarte-zerbitzuak eta, azkenik, segurtasun-indarrak eta kidegoak.

Alderdi positiboak	Hobetu beharreko alderdiak
<p>Aitortzen da irizpideak homogeneizatu eta jarduketak koordinatu beharra dagoela.</p> <p>Badaude koordinazio-protokolo batzuk. Sistema batzuek (adibidez, segurtasun-indar eta kidegoak, fiskaltza, gizarte-zerbitzuak) jarduketa-protokoloak eta barne-koordinaziorako protokoloak dituzte. Erakundeen artean koordinatzeko protokolo batzuk ere landu dira (Udaletako Gizarte Zerbitzuak – Foru Aldundiak; Osasuna – Gipuzkoako Foru Aldundia; Hezkuntza – gainerako sistemak).</p> <p>Sistema judizialaren eta beste sistema batzuen arteko esperientzia arrakastatsuak badaude antzeko arloetan (osasun metaleko arazoen arloan eta genero-indarkerian).</p>	<p>Sistema bakoitzean, jakinarazpenak jaso ditzaketen zerbitzu eta profesional ugari daude; nahasmendua eragin dezake horrek, bai eta deskoordinatuta aritzeko arrisku handiagoa ere.</p> <p>Jakinarazpenak jasotzen dituzten profesional gehienek ez dute prestakuntza espezializaturik. Ezinbestekoa dute jakitea aurrez aurre izan ditzaketen egoeretan zer egin behar duten, zer ez duten egin behar eta nola erantzun behar duten.</p> <p>Jakinarazpenak jasotzeko sistema oso zatikatuta dago:</p> <ul style="list-style-type: none">• Sarrera-puntu bakoitzak behar edo kasu mota jakin bati erantzuten dio. Ia ezin da saihestu haurrak horietako batzuetatik pasatu beharra izatea.• Zerbitzuak hainbat tokitan daude kokatuta, eta batzuetatik besteetara ibili beharko du haurrak edo nerabeak. Prozesua luzarazten du horrek, eta nahasmendu eta sufrimendu handiagoa eragin ditzake.• Jarduketak errepikatzeko edo jarduketa inkoherenteak garatzeko arriskua dago, eta, beraz, birbiktimizaziorako arriskua ere bai. Haurraren edo nerabearen kontakizuna aldatzeko arriskua dago, batez ere, txikien kasuan. <p>Gaur egun dauden jarduketa-protokoloak partzialak dira, ez dituzte barnean hartzen jakinarazpenak edo salaketak jasotzerakoan esku hartu dezaketen sistema guztiak, eta ez dute autonomia-erkidego guztia hartzen. Bestalde, horrelakoak ezartzea oso zaila da hierarkizatu gabeko egituretan edo langileen txandakatzea handia denean.</p> <p>Izan daitezke Segurtasun Indar eta Kidegoei jakinarazitako kasu berezi-bereziak, ikertzeko sistema judizialera iristen ez direnak; edota, iristen badira ere, ez da ikerketa nahikorik egiten askotan (adibidez, egile ezezaguneko balizko sexu-indarkeria kasuen salaketak, haurraren edo nerabearen adierazpen nahasgarriak, dibortzio-testuinguru gatazkatsu eta judizializatueta jarritako salaketak).</p>

BALIZKO SEXU-INDARKERIA KASUEN IBILBIDEA

Haur edo nerabe baten aurkako balizko sexu-indarkeria kasu baten aurrean Euskadin esku hartzen duten zerbitzuak desberdinak dira, kontuan hartuta jakinarazpenaren unean zer-nolako adierazleak edo frogak dauden eta nola jokatzeko duten gurasoek (jokabide horrek haurra edo nerabea babesten duen edo ez).

1

Sexu-indarkeriaren oso adierazle espezifikoak edo ebidentziak daude

Honako egoera hauetakoren bat gertatzen denean:

1. Medikuaren arreta eskatzen duten seinale fisikoak ditu haurrak edo nerabeak.
2. Sexu-indarkeria adieraz dezaketen oso adierazle fisiko nabarmenak ditu haurrak edo nerabeak.
3. Sexu-indarkeria duela 72-120 ordu baino gutxiago gertatua izan daiteke, eta aztarna fisikoak edo biologikoak izan daitezke oraindik.

Ospitaleko larrialdietara lagunduko zaio haurrari edo nerabeari.

Larrialdiko arreta-zerbitzua emango dio ospitaleak, beharrezkoa bada. Guardiako Epaitegiari jakinaraziko zaizkio gertatuak berehala (edo Fiskaltzari, erasotzailea adingabea bada).

Epaitegiak erabakiko du auzitegiko medikua ospitalera joango den, froga fisikoak edo biologikoak biltzera. Ospitaleari dagokio ebaluazio medikoa egitea eta artatzea.

Prozedura judiziala hasiko da.

2

Honako egoera hauetakoren bat gertatzen denean:

1. Haurrak edo nerabeak sexu-indarkeria jasan duela adierazi du.
2. Sexu-indarkeriaren frogak daude.

Salaketa aurkeztuko da Guardiako Epaitegian (edo Fiskaltzan, erasotzailea adingabea bada), edo **Segurtasun Indar eta Kidegoen etxeetan** (Ertzaintza, Udaltzaingoa, Polizia Nazionalea, Guardia Zibila).

Prozedura judiziala hasiko da.

Kasu batzuetan, haurra edo nerabea **miaketa medikoa** egitera bideratu ahal izango da.

3

Sexu-indarkeriaren susmoa dago

Sexu-indarkeriaren susmoa dago, beste adierazle mota batzuk daudenez.

Gurasoen jokabidearen arabera, zerbitzu batzuek edo besteek esku hartuko dute ondorenean.

Babesa ematen dioten gurasoak ez baditu haurrak edo nerabeak, edo horren zantzuak badaude:

- Foru Aldundietako haurren zerbitzu espezializatuek esku hartuko dute.

Gurasoek babesa ematen badiote:

- Udaletako Gizarte Zerbitzuek eta Haur eta Gazteen Osasun Mentaleko Zentroek esku har dezakete.
- Bizkaian eta Araban, Emakumeen Foru Zerbitzuek esku hartu ahal izango dute.

Zer gerta daiteke Euskadin, haur edo nerabe batek sexu-indarkeriaren biktima izan dela esaten duenean?



Anek 11 urte ditu, eta irakasleari esan dio familiako lagun baten abusuak jasaten ari dela.

Udaleko gizarte-langileari deitu diote irakasleak eta zuzendariak, eta Anek zer esan dien azaldu diote. Gizarte-langileak balorazioa egin du, eta dio sexu-indarkeria kasu bat izan daitekeela.

Ikastetxeko zuzendariari jakinarazi dio irakasleak. Hura Anekin bildu da, eta irakasleari esandakoa errepikatzeke eskatu dio.

Aneren amari jakinarazi dio zuzendariak.



OSASUN MENTALEKO ZENTROA

Aneren amak ez du horrenbeste itxaron nahi, eta zentro pribatu batekin jarri da harremanetan, alabak eta berak behar duten laguntza psikologikoa jasotzeko.

Haur eta Gazteen Osasun Mentaleko Zentroan artatuko dute Ane, eta balorazioa eta diagnostikoa egingo dizkiote. Tratamendu psikologikoa hasteko hitzordua hemendik bi hilabeterako eman diote.



PROZESU JUDIZIALA

Instrukzioko epaitegiak eta Adingabeen Fiskaltzak salaketa jaso dute, eta instrukzio-faseari ekin zaio.

Instrukzioko epaitegiaren aginduz, Talde Psikosozial Judizialak jaso behar du neskatoaren deklarazioa, eta bidez grabatu behar da, aldez aurretik eraturako frogaren gisa erabil dadin.

Aldez aurreko froga bildu eta bi hilabetera, Instrukzioko Epaitegiak sinesgarritasun-azterketa eskatu du. Talde Psikosozial Judizialak berriro deitu dio Aneri elkarrizketarako.

Haur edo nerabe batentzat beti da arazo justizia-sistematik iragan beharra izatea, baina gerta daiteke profesionalak jardunbide egokiak aplikatuz konpontzea auzia, eta haur edo nerabearentzat onuragarri izango da hori. Askotan, ordea, gauzak ez dira horrela izaten. Hona hemen adibide bat, ohikoa baina saihestu beharko litzatekeena.



Bi urte pasatu dira. 14 urte ditu jada Anek. Epaiketaz arduratuko den epaitegiak edo auzitegiak ahozko epaiketara deitu du, haren lekukotasuna entzuteko.

Ez datoz bat zenbait elementutan duela bi urte aurretiaz eraturako froga, Osasun Mentaleko Zentroaren txostena, Talde Psikosozialaren txostena, eta Anek ahozko epaiketan emandako lekukotasuna.

Epaiketa amaitu ostean, kasuaren arduraren izan duen epaitegiak edo auzitegiak ez du aski elementu ustezko erasotzailea kondenatzeko, eta errugabetzat jo du.

Gutzira, hiru urte baino gehiago pasatu dira, eta gertatua gutxienez zortzi pertsonari kontatu behar izan dio Anek.

Denboraldi horretan, Anek eta haren amak zentro pribatu baten laguntza psikologikoa jaso dute. Neska bilakaera positiboa izaten ari da, nahiz eta epaiketak eta erasotzailearekin topo egiteko arriskuak sortzen dizkion ziurgabetasunari eta ezinegonari aurre egiteko laguntza behar duen oraindik, udalerrri berean bizi baita erasotzailea.

HAURRAREN EDO NERABEAREN MIAKETA

Jakinarazpena jaso ostean, biktima miatzea edo aztertzea da hurrengo pausoa. Horrek, batzuetan, barnean hartzen du miaketa medikoa, froga fisiko edo biologikoak hartu ahal izateko, nahiz eta askotan ez den halakorik behar izaten, biktimizazioa aspaldi gertatu delako. Kasuen ehuneko handi batean, haurraren edo nerabearen lekukotasuna izango da eskura dagoen ebidentzia bakarra edo nagusia.

Beharrezkoa denean, ahalik eta azkarren egin behar da; espezializatutako profesionalek egin behar dute, teknika egokiek, ingurune egoki eta goxoan, haurraren edo nerabearen beharretara egokituta, eta behin bakarrik. **Probak errepikatzeak, denboran luzatzeak eta koordinatu gabe aritzeak bigarren biktimizazioa dakarkite haurrari edo nerabeari.**

Miaketa medikoa

Esku hartzen duten eragileak: ospitaleetako larrialdiko guneak, osasun-etxeak eta Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutua.

Alderdi positiboak	Hobetu beharreko alderdiak
<ul style="list-style-type: none">• Miaketa medikorako, jarduketa-protokoloak dituzte ospitaleetako zentro batzuek. (egin beharreko probak, prozedura, epeak).• Biktimaren eta familien beharrekiko sentiberatasuna erakusten dute osasun-zerbitzuek eta profesionalek: intimitatea, tratu arretatsuak, bikoiztasunak saihestea, arintasuna, berriro biktimizatzea saihestea.• Erreferentziatzko lau ospitaleetan (Gurutzetan, Basurto, Donostia eta Txagorritxu), espazio intimoak daude haurra edo nerabea hartu eta artatzeko.• Osasun-sistemaren eta sistema judizialaren artean protokolo bidez eta koordinatuta bideratu ohi dira jarduketak, kasurik larrienenetan.	<ul style="list-style-type: none">• Miaketa medikoa noiz den beharrezkoa zehazteko orduan, esku hartzen duten zerbitzu guztien artean adostutako irizpideak behar dira.• Ez dago ospitale-zentro eta osasun-etxe guztietarako protokolo komun, zehaztu eta osorik, haurraren edo nerabearen mediku-azterketa nola egin xedatzen duenik, ez kasu akutuek direnean eta ez ez direnean (egin beharreko probak, prozedurak, denborak).⁹• Haurra edo nerabea ez dute miatzen beti espezializatutako profesionalek. Biktima den haur edo nerabe bat askotariko osasun-baliabideetara irits daiteke. Ez dute guztiek pediatriako zerbitzua. Eta zerbitzu horietako profesional guztiek ez dute jaso prestakuntza espezializatua.• Haurra edo nerabea artatzeko gunea ez dago beti erabilgarri. Halakoetan, areto komunetan egon behar izaten dute auzitegi-medikuaren zain.• Ez dago diziplina anitz biltzen dituen balorazio-unitaterik. Ebaluazio fisikoaz arduratzen dira osasun-etxeak; gainerako alderdiak beste zerbitzu batzuek ebaluatu behar izaten dituzte. Hainbat lekutan eta unetan aztertzen da haurra, hainbat profesionalen eskutik.

⁹ Emakume helduen aurkako sexu-erasoen kasuan, badira halako jarraibideak: Genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen aurrean Euskadin nola jardun jakiteko jarduketa-gida. (Osakidetza 2019). Gida horretan xedatzen denaren arabera, ebaluazio ginekologikoa eta auzitegi-medikuarena ekitaldi bakarrean egin behar dira, bateratuta eta koordinatuta. Osasun-langileentzako jarduketa-protokoloa zehazten du gidak: biktimarekin nola jokatu, miaketaren edukia, horrelakoak hautemateko laginak hartzea, analitikak, prebentzio-izaerako tratamenduak, ondorengo jarraipena, etab. Sexu-indarkeriaren biktima izan diren emakumeei soilik aplikatu dakizkieke jarraibide horiek.

Sexu-indarkeriaren biktima izan den haurrari edo nerabeari egiten zaion elkarrizketa

Sexu-indarkeria jasan izan dezakeen haurrari edo nerabeari bi elkarrizketa mota hauek egin ahal zaizkio:

- **Esplorazio-elkarrizketa**, susmoa dagoen kasuetan egiten dena; halakoetan, ez dago berariazko adierazpenik, ez eta adierazle fisiko edo beste mota bateko elementu nahikorik ere polizia-etxean edo epaitegian salaketa jartzeko. Normalean, elkarrizketa hauek beste iturri batzuetatik informazioa bilduz osatzen dira. Helburua ea sexu-indarkeriarik izan den argitzea da, eta, horrela bada, jarraipena egitea.
- **Auzitegi-elkarrizketa**, haurraren edo nerabearen lekukotza jasotzeko auzitegiak edo epaitegiak eskatuta egiten dena, aurrez eraturako frogara gisa erabiltzeko. Talde Psikosozial Judizialak egiten du. Oro har, lekukotasunaren sinesgarritasuna baloratzeko txostenarekin osatzen da, eta elkarrizketa egin duen psikologoak berak egiten du txostena ere.

A - Esplorazio-Elkarrizketa

Esku hartzen duten eragileak: Udaletako Gizarte Zerbitzuak, Haur eta Gazteen Osasun Mentaleko Zentroak, Foru Aldundietako Haurren eta Emakumeen Zerbitzuak.

Alderdi positiboak	Hobetu beharreko alderdiak
<ul style="list-style-type: none"> • Hiru Foru Aldundietako haurren zerbitzuetan talde espezializatuak daude sexu-indarkeria kasuen susmoak daudenean ikertzeko. • Oro haur, talde horiek nahiko azkar heltzen dioten jarduketari, nahiz eta batzuetan luza daitekeen. 	<ul style="list-style-type: none"> • Haurren eta nerabeen kontra sexu-indarkeria kasu baten susmoa dagoenean Foru Aldundietako talde espezializatuak ematen duten estaldura ez da inondik ere unibertsala. Babesleak ez diren familietako haur eta nerabeak soilik artatzen dituzte. Eta kasu guztien ehuneko txiki bat dira horiek. • Guraso babesleko familietan, ez dituzte eskueran sare publikoko zerbitzu eta talde espezializatu horiek, susmoak ikertzen jarraituko luketen eta haur eta nerabeei horrelakoak adierazteko bidean lagunduko lieketen zerbitzu eta taldeak. Horrelako kasuetan esku hartu dezaketen zerbitzuek (Udaletako Gizarte Zerbitzuak, Haur eta Gazteen Osasun Mentaleko Zentroak) ez dute profesional espezializaturik. • Gurasoak babesleak diren edo ez zehazteko irizpide argi eta komunik ez dago. Horrelakoak zehazteko erabiltzen den irizpideetako batek, salaketa jartzeak, zalantzak eta kontraesanak sortzen ditu. • Talde horiek ez diote nahitaez jarduketa-prozesu jakin bati jarraitzen, eta ez dituzte erabiltzen ikerketa-protokolo komunak. • Horrelako egoera bat ezagutarazten denean, sistema judizialak berriro haurra edo nerabea aztertzea joko du (aurrez eraturako frogara edo ahozko epaiketako bilduz). Kasu batzuetan, esplorazio-elkarrizketan biltzen den lekukotasuna zalantzan jartzen da, sugestio bati lotuta egon daitekeelako. Kontuan hartuta hori eta prozesu judiziala denboran luzatu egiten dela askotan, artxibatze arrisku handia dagoela, berriro biktimizatzea ekar dezakeela..., profesional batzuek zalantza egiten dute kontatutakoa (halakorik denean) instantzia judizialei jakinarazteaz. • Ez dago araututako prestakuntza espezifikorik edo sinestamendurik esplorazio-elkarrizketen kasuan.

Haur eta nerabeen kontrako sexu-indarkeriaren susmopeko kasuak aztertzeko, **lau zerbitzu espezializatu** ditu Euskadiko sare publikoak. Guztiak Gizarte Zerbitzuen mendekoak dira:

- **Umeen Zerbitzuen mende dauden hiru talde, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundietakoak**, hurrenez hurren. Gurasoek haurrarekiko edo nerabearekiko jarrera babeslea ez dutenean, ez dutela babesten pentsatzeko susmoa dagoenean edo familian beste babesgabetasun-egoera larri bat dagoenean (adibidez, tratu txar fisikoak, zabarkeria) soilik egiten dute miaketa edo azterketa. Balorazioa eginez eta haurrari eta familiari laguntza edo tratamendu psikologikoa emanez jarraitzen dute, sexu-indarkeria berresten denean edo ziurrenik hala izan dela ondorioztatzen denean.

Modu independentean lan egiten dute talde horiek, bakoitzak bere prozedurekin eta bere protokoloekin. Dena den, adingabeak artatu eta babesteko autonomia-erkidegoan dagoen legediari atxikitzen zaio horien jarduna, eta kasu honetan, legedi hori garatzeko xedez Eusko Jaurlaritzak oro har ematen dituen xedapen arau-emaleei; Euskadiko lurralde-eremuan Foru Aldundien jarduketa harmonizatzea dute xede horiek, eta horretarako, irizpide, gidalerro eta prozedurazko jarraibide homogeenak ezartzen dituzte.

- **Gasteizko Udaleko Gizarte Zerbitzuen mendeko talde bat**. Bere udalerrian zerbitzu honetara iristen diren susmopeko familien kasu guztiak aztertzen ditu (Arabako Foru Aldundiaren ardurapekoak salbu). Sexu-indarkeria gertatu dela berresten bada edo oso posible dela ondorioztatzen bada, laguntza edo tratamendu psikologikoa emateaz talde hau arduratuko da, edo Gasteizko Udalak xede horretarako kontratatutako beste kabinete bat.

Gizarte Zerbitzuen eta Haurrak eta Nerabeak Babesteko Zerbitzuen antolaketa Euskadin

Beste autonomia-erkidego batzuetan ez bezala, eta azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko harremani buruzkoak, xedatzen duenarekin bat etorrita, Euskadin, hiru Lurralde Historikoei (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) dagokie, beren lurralde-eremuaren barruan, gizarte-zerbitzuen arloko autonomia-erkidegoko legedia betearaztea. Ildo horretatik, haurrei eta nerabeei arreta eta babesa emateko ezartzen diren xedapen arau-emaleak betearaztea dagokie bereziki, haurren eta nerabeen arloko legediari dagokionez.

Horrekin lotuta, eta abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, xedatzen duenarekin bat etorrita, baliteke prestazio eta zerbitzu batzuk Euskadiko lurralde osoan bateraturik eskaini behar izatea, hain zuzen ere, interes orokorrekoak direlako, edo direnak direlako edo diren bezalakoak direlako, edo zenbat erabiltzaile izan ditzaketen kontuan harturik, edo autonomia-erkidegoan eskainita lor daitezkeen eskala-ekonomiak kontuan harturik; bada, lege honen ondorioetarako, prestazio eta zerbitzu horien gaineko gauzatze-eskuma da zuzeneko ekintza.

Beraz, aurreko oinarri horiei erreparatuta, **Foru Aldundiak dira arrisku larrian eta babesgabetasun-egoeran dauden adingabeei eman beharreko babesaren arloan esku hartzeko eskumena duten euskal administrazio publikoak.**

Adierazitako arau-testuinguru horretan, eta aipatutako alderdi horiek betearazteko dituzten eskumenen esparruan, honako ahalmen hauek dituzte Lurralde Historikoek, beren lurraldeari eta beren zerbitzuei dagokienez, betiere: erregelamenduak egiteko ahal, beren zerbitzuak antolatzekoa -hala nola adingabeei arreta eta babesa ematekoak-; administrazio-ahala, ikuskapena barne; eta berrikustekoa, administrazio-bidean. Era berean, Lurralde Historikoek aurrekontuetarako erabateko ahalmena dute, eskumen eta ahal horiek guztiak finantzatzeko eta garatzeko.

B - Auzitegi-elkarrizketa

Esku hartzen duten eragileak: epaileak eta Talde Psikosozial Judiziala.

Alderdi positiboak	Hobetu beharreko alderdiak
<ul style="list-style-type: none">• Auzitegi-elkarrizketak Talde Psikosozial Judizialak egiten ditu, eta espezializatutako profesionalak daude taldean, nazioartean bermatuta dauden elkarrizketa-eredu baliodontan prestatutakoak.• Gesell erako aretoak daude, haurrentzat egokituak (lau areto: Bilbon, Barakaldon, Gasteizen eta Donostian), bai eta auzitegi-elkarrizketarako egokitutako bitarteko tekniko egokiak ere.• Talde Psikosozialak aurrez eraturako froga nahiko bizkor gauzatzeko aukera du, eskatzen den unetik bi aste inguruko epean.	<ul style="list-style-type: none">• Aurrez eraturako froga legezko aukera bat da, baina ez da betebeharra. Hortaz, eskatzeko erabakia, edo ez eskatzekoa, epaileei dagokie, haurren edo nerabearen babes-beharrak kontuan hartuta; gainera, aditua den profesional batengana jo daiteke solaskide gisa, eta kontraesan-bermea¹⁰ errespetatuz beti. Epaile batzuek sistematikoki eskatzen dute, eta beste batzuek, berriz, inoiz ez.• Aurrez eraturako froga gauzatzeak ez du salbuesten haurra edo nerabea ahozko epaiketako deklaraziotik.• Epaitegiek areto egokituak dituzten arren, ingurune judizialak ez ditu saihesten haurrak edo nerabeak izan ditzakeen beldur-sentimendua eta antsietatea, froga-iturri gisa galdeketa egin behar baitzaio.• Batzuetan, ez dira nahikoa aretoen kopurua eta neurria.• Ez dago ezarrita zenbat denbora iraungo duen gehienezko prozedurak, bere fase guztietan. Aurrez eraturako froga izan arren, ez da beti salaketa aurkeztu eta berehala egiten. Premiazkoak ez diren kasuetan, itxaronaldia gehiegizkoa izan daiteke. Zenbaitetan, epaileak aurrez eraturako froga eskatu arren, denboraldi bat igarotzen da eskaera Talde Psikosozialari iristerako. Haurren edo nerabearen sufrimendua luzatzen du horrek, eta atzeratu egiten du behar dezakeen laguntza edo tratamendu psikologikoa jasotzeko aukera.• Batzuetan, aurrez eraturako froga ez da gauzaten, forma-akatsengatik.• Batzuetan, aurrez eraturako frogarako eta lekukotasunaren baloraziorako eskaera egiten dute epaileek zenbait unetan, eta horren ondorioz, haurrak edo nerabeak berriro ere epaitegira joan behar du. Zenbaitetan, bi une horien artean ere denbora gehiegi igarotzen da.• Ez dago araturako prestakuntza espezifikorik edo sinestamendurik auzitegi-elkarrizketen kasuan.
<p>JARDUNBIDE EGOKIAK Autonomia-erkidego guztiek ez dituzte Euskadin dauden Gesell aretoak eta Talde Psikosozial Judizialaren baliabide teknikoak.</p>	

¹⁰ Aurrez eraturako froga bat dagoenean, ahozko epaiketaren deklaratzeko salbuespena eman dezake epaiketaz arduratzen ari den epaileak (edo epaileek, baldin eta auzitegia bada), deklaratzeko horrek haurrari edo nerabeari kalte larria eragingo diola egiaztatzen denean –txosten tekniko bidez–. Oro har, haurrak edo nerabeak ahozko epaiketaren deklaratzeko salbuespena izatea gehiagotan gertatzen da hamabi urte arteko haurren kasuan, eta gutxiagotan adin horretatik aurrera, epaiketaren agertzeko bidea arautzen duen lege-eskemari jarraiki.

HAURRARI EDO NERABEARI ETA HAREN FAMILIARI LAGUN EGITEA ETA LAGUNTZA ETA BABESA EMATEA

Sexu-indarkeriaren biktima izan den haurrari edo nerabeari eta haren familiari lagun egiteko eta laguntza eta babesa emateko beharrak askotarikoak izan daitezke, kontuan hartuta zer-nolako esperientzia jasan duen ez ezik norberaren historia eta biktimaren eta haren inguruenaren ezaugarriak. Aholku-beharra izan dezakete (psikologikoa eta lege-esparrukoa), edo euspen-beharra (krisaldietan esku hartzea), laguntza psikologikoaren beharra, edo tratamendu psikologiko edo psikiatrikoarena.

Esku hartzen duten eragileak: Udaletako Gizarte Zerbitzuak, Haur eta Gazteen Osasun Mentaleko Zentroak, haurren zerbitzuak eta emakumeen zerbitzuak (Foru Aldundiak).

Alderdi positiboak	Hobetu beharreko alderdiak
<ul style="list-style-type: none">• Foru Aldundietako haurren zerbitzuetan eta emakumeen zerbitzuetan, espezializatutako taldeak daude biktima izan diren haur eta nerabeei eta horien familiei lagun egiteko eta laguntza eta tratamendua emateko.• Larrialdiak artatzeko etengabeko zerbitzu orokorrak daude (365 egunetan, egunean 24 orduz), sexu-indarkeriaren biktima izan diren haur eta nerabeei autonomia-erkidego osoan estaldura emateko.	<ul style="list-style-type: none">• Foru Aldundietako talde espezializatuen estaldura oso urrun dago unibertsala izatetik. Babesleak ez diren familietako haur eta nerabeak soilik artatzen dituzte. Eta kasu guztien ehuneko txiki bat dira horiek. Bestalde, talde horiek ezin diote modurik egokienean erantzun beti dagoen eskariari; itxarote-zerrendak daude, eta arretaren intentsitatea murriztu egin dezake horrek. Zenbaitetan, atzeratu egiten da horien esku-hartzea, prozesu judizialaren ondorioz.• Guraso babesleak dituzten haur eta nerabeek oso sarbide mugatua dute laguntza eta tratamendua emateko zerbitzu eta talde espezializatuetan. Haur eta Gazteen Osasun Mentaleko sare publikoa gainezka dago, eta ez du arreta arin eta nahikoa bermatzen.• Erabilgarri dauden larrialdiko zerbitzuek ez dute haur eta nerabeen kontrako sexu-indarkerian espezializatutako profesionalik.

Sexu-indarkeriaren biktima izan diren haur eta nerabeei eta haien familiei lagun egiteko eta laguntza eta tratamendua helarazteko, **lau zerbitzu espezializatu ditu** Euskadiko sare publikoak. Guztiak Gizarte Zerbitzuen mendekoak dira:

- **Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundietako Umeen Zerbitzuen mende dauden bi talde.** Sexu-indarkeria kasuen susmoa dagoenean miaketa egiten duten talde berberak dira. Jarrera babeslea erakusten ez duten gurasoekiko familiak artatzen dituzte soilik¹¹. **Arabako Foru Aldundiaren Haurren Zerbitzuak** –familia mota bera artatzen du- espezializatu gabeko talde baten bidez eskaintzen du arreta.
- **Bizkaiko Foru Aldundiaren barnean dagoen talde bat, Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuaren mendekoa.** Laguntza psikologikoa ematen die sexu-indarkeriaren biktima izan diren haur eta nerabeei, Haurren Zerbitzuak artatzen ez dituenen; zehazki, bi gurasoek edo gutxienez batek babes-rola betetzen duenean.
- **Arabako Foru Aldundian genero-indarkeriaren biktimei arreta emateko dagoen zerbitzuaren mendeko talde bat.** Sexu-indarkeriaren biktima izan diren haurrei laguntza psikologikoa ematen die, Haurren Zerbitzuan ematen den arretaren xede ez direnean; zehazki, egoera genero-indarkeriaren barnean sartzen denean.

Modu independentean lan egiten dute talde horiek, bakoitzak bere prozedurekin eta bere protokoloekin. Dena den, adingabeak artatu eta babesteko autonomia-erkidegoan dagoen legediari atxikitzen zaio horien jarduna, eta kasu honetan, legedi hori garatzeko xedez Eusko Jaurlaritzak oro har ematen dituen xedapen arau-emaileei; Euskadiko lurralde-eremuan Foru Aldundien jarduketa harmonizatzea dute xede horiek, eta horretarako, irizpide, gidalerro eta prozedurazko jarraibide homogeenak ezartzen dituzte.

Zerbitzu horiez eta Biktimari Laguntzeko Zerbitzuaz gain (ikus hurrengo atala), Euskadiko **sare publikoan ez dago espezializatutako zerbitzu edo talde gehiagorik** biktima izan diren haur eta nerabeei eta horien familiei lagun egiteko eta laguntza eta tratamendua emateko. **Udaletako Gizarte Zerbitzuek** ez dute horrelakorik¹². Haur eta nerabe batzuek eta familia batzuek **Haur eta Gazteen Osasun Mentaleko Zentroetara** jotzen dute; gainezka daude zentro horiek, eta, beraz, ezinezkoa zaie behar duten arreta ematea.

¹¹ Euskadin, arrisku-egoera larrian edo babesgabetasun-egoeran dauden adingabeak babesteko eskumenak Foru Aldundiek dituzte, eta, zehazki, horietako Haurren Zerbitzuek; abenduaren 5eko 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa, 41. art.

¹² Duela gutxi arte, zerbitzu espezializatua izan du Gasteizko Udalak. Gaur egun, eskuragarri jarraitzen du, baina ez du arreta espezializatua bermatzen.

Prozesu judizialak ez du bermatzen haurraren edo nerabearen interes gorena

PROZESU JUDIZIALA: SALAKETA, AKUSAZIOA ETA EPAIKETA

Haur eta nerabeen kontrako sexu-indarkeria Espainiako Zigor Kodeak kondenatutako delitu bat da. Delitu hori salatzeak prozesu judizial bat hasten du, eta ez daude koordinatuta prozesu hori eta horrelako kasuak hautemateko zerbitzuei egoera jakinaraztean abiarazten den prozesua.

Sistema judizialaren helburua ez da biktima den haurra edo nerabea babestea, ustezko delitu-egitate bat prozesu justu baten bidez epaitzea baizik, eta akusatutako pertsona errudun deklaratu gero, ustezko erasotzaileari zigorra ezartzea. **Hortaz, prozesua ez dago funtsean haurra edo nerabea babestera zuzendua; aitzitik, haur edo nerabe hori bere historiaren lekuko gisa tratatzen du, justiziaren ikuspegitik, eta frogak lortu behar ditu historia horretatik.**

Esku hartzen duten eragileak: polizia (Ertzaintza eta udaltzaingoa; zenbaitetan, Polizia Nazionala eta Guardia Zibila), biktima, biktimaren laguntzaileak, gurasoak edo legezko tutoreak, akusatua, biktimaren lege-aholkularia, akusatuaren abokatu defendatzailea, Fiskaltza, epailea/auzitegia, perituak.

Alderdi positiboak	Hobetu beharreko alderdiak
<ul style="list-style-type: none">• Sektore judizialean eta Fiskaltzan, sexu-indarkeria kasuetan haurren birbiktimizazioaren arazoarekiko sentibilizatuta daude. Saihesteko edo minimizatzeko jarduketa-jarraibideak eta legediak ere badaude¹³.• Biktimari Laguntzeko Zerbitzuaren jarduketa. Nahiz eta zerbitzu honetan ez dagoen haur eta nerabeen arloko esku-hartzeetan espezializatutako profesionalik, oso lan positiboa betetzen dute horiei eta horien familiei laguntza eta babesa emateko orduan.	<ul style="list-style-type: none">• Ez dago ezarrita zenbat denbora iraungo duen gehienezko prozedurak. Prozesu judiziala gehiegi luzatzen da, bi edo hiru urtez batzuetan. Horren ondorioz, haurrak edo nerabeak eta haren familiak estres emozionala izan dezakete, edo areagotu egin daiteke.• Kasu horien berezko ezaugarriak kontuan hartuta, nahiko ohikoa izaten da froga-iturri baliagarriak eta nahikoa lortzeko zailtasunak izatea, epaiketaren fasea hasteko -kasua artxibatuko da-, edo epaiketa ondoren kondena-epaia ematea arrazoituko luketen frogak lortzeko zailtasunak izatea.• Zailtasun handia dago sexu-indarkeriaren arloko alegazioei behar bezala heltzeko, gurasoen artean gatazka handiko testuinguruak daudenean.• Gainerako zerbitzuekin koordinatuta jarduten ez denez, jada eginda dauden probak bikoiztu egiten dira.• Haurrari edo nerabeari ahozko epaiketan deklaratzeko dei diezaiekete, aurrez eraturako froga gauzatuta izan edo ez. Oro har, bereziki zaila da haurrarentzat edo nerabearentzat ahozko epaiketan deklaratzeko.

13 4/2015 Legea, apirilaren 27koa, Delituen Biktimaren Estatutuarena. https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2015/04/28/pdfs/BOE-A-2015-4606-E.pdf. 3/2009 Zirkularra, azaroaren 10ekoa, biktima diren adingabeak eta lekukoak babesteari buruzkoa. Estatuko Fiskaltza Nagusia, FIS-C-2009-00003 https://www.boe.es/buscar/abrir_fiscalia.php?id=FIS-C-2009-00003.pdf

4/2015 Legea, apirilaren 27koa, Delituaren Biktimaren Estatutuarena

Delituaren Biktimaren Estatutuak gure herrialdean edozein delituren biktimek dituzten eskubide prozesalak eta prozesuz kanpokoak biltzen ditu. Estatutu horretan, adingabeak zaurgarritasun bereziko biktimatzat jotzen dira, eta, horregatik, sistema judizialarekiko lehen kontaktutik adingabearen beharrei buruzko banakako ebaluazioa egin behar da, eta babes-teko, informatua izateko, justiziarako eta erreparaziorako eskubideei erantzun behar zaie.

Biktimaren Estatutuak adingabeentzat babes-neurri bereziak sustatzen ditu (23. eta 26. art.), ikerketaren garapena edo epaiketa egitea biktimarentzako beste kalte-iturri bat bihur daitezzen saihesteko edo mugatzeko. Aipamen berezia egiten die zenbait delituren biktima diren haur eta nerabeei, barnean hartuta sexu-askatasunaren edo sexu-ukigabetasunaren aurka doazenak.

Aintzat hartzen diren neurriak, besteak beste, hauek dira: biktimari deklarazioa hartzea, beharrezkoa denean, justifikazio gabeko luzapenik gabe; behar besteko gutxieneko kopurura murriztea; deklarazioa xede horretarako pentsatutako edo egokitutako tokietan hartzea, adituak diren profesionalen eskutik; ikertzeko fasean jasotako deklarazioak ikus-entzunezko bitartekoak erabiliz grabatzea, eta Prozedura Kriminalaren Legeak zehaztutako kasu eta baldintzetan ematea epaiketan.

“Sistema judizialek igarotzea beti da zaila. Ahalik eta inbasio-izaera txikiena izan dezan lortzea da xedea”

Iñaki Subijana

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko presidentea

Gaur egun haur edo nerabeen aurkako sexu-indarkeriako kasuetan esku hartzeko prozesua Euskadin



- Ospitaleko larrialdiak
- Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutua
- Osasun-zentroak

Euskadin, ez dago zerbitzu espezializatu eta unibertsalik haur eta nerabeei gerta dakizkiekeen sexu-indarkeria kasuak balioesteko. Hainbat zerbitzuek esku hartzen dute, biztanle batzuei edo besteei arreta eskainiz, eta gehienak ez dira espezializatuak.

BALORAZIOA ETA DIAGNOSTIKOA

- Foru Aldundietako talde espezializatuak
- Udaleko Gizarte Zerbitzuak
- Emakumeen Foru Zerbitzuak (Araba eta Bizkaia)

Balioespena konplexua da, kasu gehienetan ez dagoelako sexu-indarkeria erakusten duen froga fisikorik edo adierazle espezifikorik. Horregatik, profesional espezializatuak egin behar dute beti.

- Haur eta Gazteen Osasun Mentaleko Zentroak
- Haurren psikiatria

Diagnostikoa ez dute beti zerbitzu publikoek egiten, talde pribatuak ere egin dezakete.

Prozesu judiziala oso kaltegarria izan ohi da haurrentzat edo nerabearentzat. Bigarren mailako biktimizazioa murrizteko oso gomen-dagarria bada ere, aurrez eraturako proba ez da nahitaezkoa.

Kasu asko artxibatu egiten dira, edo ez da kondenatzen ematen, askotan froga baliozkorik ez dagoelako.

PROZESU JUDIZIALA

Prozesu judizialak instrukzio-fase bat, delitua kalifikatzen den tarteko fase bat eta ahozko epaiketa ditu.

EPAIA

Epaia da prozesu judizialaren azken fasea. Sistema judizialak salatutako gertakariari buruz hartutako azken erabakia da.

8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, indarkeriaren aurrean haurrak eta nerabeak erabat babesteko

Indarkeriaren aurka haurrak eta nerabeak erabat babesteko Lege Organiko berriak neurri garrantzitsuak hartzen ditu haurren eta nerabeen aurkako indarkeriaren sentsibilizazioa, prebentzioa eta detekzio goiztiarra egiteko, biktimak babesteko eta haien eskubideak bermatzeko. Neurri horiek, besteak beste, honako hauetan eragiten dute:

- Herritarrek eta profesionalak mota horretako egoerak agintari eskudunei jakinarazteko betebeharra.
- Indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeei arreta integrala eta laguntza profesional espezializatua ematea.
- Jarduera-protokoloak izatea horrelako kasuetan inplikaturako eremu eta zerbitzuetan (justizia, segurtasuna, osasuna, gizarte-zerbitzuak, hezkuntza, kirola eta aisia).
- Administrazio publikoen arteko erakunde arteko lankidetzak.
- Haur eta nerabeekin harremanetan dauden zerbitzuetan lan egiten duten profesionalen prestakuntza espezializatua.
- Epaitegiei eta auzitegiei laguntza espezializatua ematen dieten organo judizialen, fiskaltzaren eta talde teknikoaren espezializazioa.
- Aurrez eraturako frogaren instrukzio-fasean egitea eta epaiketa-egintzan berriro egitea, 14 urte-tik beharrezko arau orokor gisa, eta ahozko epaiketan deklaratzeko salbuespena izatea.
- Erregistro nazional bateratu bat sortzea, haurren eta nerabeen aurkako indarkeria-kasuen jarraipena egiteko.

Haur eta Nerabeei buruzko Lege-proiektu autonomikoa

«Haur eta Nerabeei buruzko Legearen Aurreproiektuak» arau-testu bakar batean txertatu eta garatu nahi ditu haurrak eta nerabeak babesteko arloan eragina duten estatu-mailako lege-xedapenak.

Testuinguru horretan, hainbat neurriren katalogo zabala lantzen da, alde batetik, ordenamendu juridikoak adingabeei aitortzen dizkien eskubideez benetan baliatzen direla ziurtatzeko, bai eta haien nortasunaren garapen askea bermatzeko ere, haien bizitzako eremu eta ordena guztietan; eta, bestetik, adingabeak indarkeria mota guztien aurka eta edozein eremutan erabat babesten direla bermatzeko.

Neurri horiek haurrek eta nerabeek politika publiko guztien plangintzan eta formulazioan duten zeharkakotasunaren eta erantzunkidetasunaren printzipioetan oinarritzen dira, eta jardun publikoaren maila hauetan eragiten dute:

1. Haurren eta nerabeen ongizatearen **promozioa**, kontzientziazioaren, dibulgazioaren, prestakuntzaren eta sentsibilizazioaren bidez, bai eta haien eskubideen garapenera eta haien betebeharren jabetzeara ere.
2. **Prebentzioa**, arreta berezia jarriz detekzio goiztiarrean, zaurgarritasun-testuinguruetan esku hartzean eta arreta soziosanitarioari ekitean.
3. Indarkeria- eta babesgabatasun-egoeren aurreko **babesa**, indarkeriarekin edo babesgabatasunarekin lotuta ez dauden egoera kaltegarrien aurreko arreta, eta zigor-legearekin gatazkan dauden haur eta nerabeekin gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea.
4. Haurren eta nerabeen **parte-hartze** zuzena eta aktiboa gizartean eta beren eskubide eta betebeharretan eragina duten politika publikoetan.

Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren gomendioak

Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoa duela urte asko hasi zen bere memorietan eta txostenetan haur eta nerabeen aurkako sexu-indarkeriari arreta berezia eskaintzen, bai eta kasu horietan emandako esku-hartzea hobetzeko hainbat jarduera egiten ere.

Duela gutxi, bulego horrek jarduteko jarraibide teknikoaren proposamen baten lanketa gidatu du, eta Gomendio gisa aurkeztu du. Proposamen horretan, honako hauek nabarmentzen dira, besteak beste:

- Sexu-indarkeria jasan duten haurrak eta nerabeak kalteberatasun **bereziko biktimatzat hartu behar dira, haiekin lehentasunez jardungo dela bermatu behar da**, prozesu osoan lagunduz, eta esku hartzen duten eragilearen espezializazioa ere bermatu behar da.
- **Sexu-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeei arreta ematen diharduten erakundeen arteko lankidetzeta eta koordinazioa hobetzeko** beharra, kasu posibleen jakinarazpenei hasierako harrera eta arreta berezia eskainiz.
- Jarduera guztiak haurren eta nerabeen **bigarren mailako biktimizazioa** arintzera bideratzea, eginbide errepikakorrak saihestuz eta gutxieneko esku-hartzearen, bizkortasunaren eta espezializazioaren irizpideetara egokituz.
- **Esparru judizialean**, bereziki garrantzitsua da **aurrez eraturako proba ahalik eta modurik onenean egitea**, haurren eta nerabeen aurkako sexu-indarkeriaren kasuan funtsezko zutabea baita, etorkizunean ondorio guztiak izan ditzan, alderdi guztientzako berme guztiekin eta tratamendua **lehenbailehen hastea ahalbidetuko duen denbora laburrean**.
- **Tratamendu espezializatuko unitate edo zerbitzu bat sortzea**, sexu-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabe guztiei arreta emateko –indarkeria babes- edo babesgabatasun-testuinguru batean gertatu den alde batera utzita–, zerbitzuaren estaldura unibertsala eta hura garatzeko behar den espezializazioa lortzeko xedez.
- **Lau ospitaletan** (Gurutzeta, Basurtu, Donostia, Txagorritxu) zentralizatzea kasu larrietako biktima diren haur eta nerabeen azterketa medikoa, eta zentro horiek zeregin horretarako profesionalak, espazioak eta ekipamendu espezializatua izatea.
- **Profesionalen prestakuntza eta espezializazioa sustatzea** haurren eta gazteen biktimizazioan eta, bereziki, sexu-indarkerian, eremu guztietan, baita jarduera pribatuan ere.

Arartekoaren maiatzaren 18ko 2/2021 gomendio orokorra. Haurren abusu eta sexu-esplotazio kasuetan jarduteko jarraibideak, Euskadiko haurrak eta nerabeak. https://www.ararteko.eus/BaliabideakWeb/DOKUMENTUAK/1/0_5130_3.pdf

ZER DA BARNAHUS EREDUA?

CHILDREN'S ADVOCACY CENTERS ETA BARNAHUS: ZER DIRA ETA ZER EGITEN DUTE?

Barnahus deritzen zentroak, hasiera batean Children 's Advocacy Centers (CAC) deitzen zirenak, Estatu Batuetan sortu ziren 80ko hamarkadan, unitate zentralizatu batetik sexu-indarkeriaren eta tratu txarren biktima diren haur eta nerabeei arreta emateko baliabide gisa.

Zentro horien helburu nagusia profesional espezializatuak eta koordinatuak izatea da, eta haurren edo nerabeen aurkako sexu-indarkeria kasuetan esku hartzen duten baliabide guztiak espazio berean biltzea, hala, biktimen eta haien familien bigarren mailako biktimizazioa murrizteko.

Baliabide guztiak toki berean izanik, haurrak edo nerabeak hainbat deklarazioren bidez sexu-biktimizazioa behin eta berri bizi behar izatea saihesten dute Barnahus zentroek, eta, era berean, ingurune atsegina eta errespetuzkoa eskaintzen dute haien beharren aurrean.

Zentro horien bideragarritasuna eta eragin positiboa kontuan hartuta, ia Europa osora hedatu dira azken urteotan.

Children's Advocacy Centers deritzenen eredia Estatu Batuetan

Lehenengo Children's Advocacy Center (CAC) zentroa 1985ean sortu zen Estatu Batuetan (Huntsville, Alabama), sexu-indarkeriaren biktimaren haur eta nerabeen bigarren mailako biktimizazioa murriztera bideratua. Hauek ziren helburu nagusiak:

Sexu-indarkeriaren eta bestelako tratu txarren biktimaren haur eta nerabeei egiten zaizkien **ebaluazioak eta elkarrizketak ahal beste murriztea**, diziplina anitzeko taldeak koordinatuz.

Haurrei eta nerabeei **ingurune atsegina** eskaintzea, ebaluazioa haien ongizate emozionala arriskuan jarri gabe egin ahal izateko.

Biktima diren haur eta nerabeen ebaluazioan **goi-mailako prestakuntza** eta entrenamendua duten profesionalak izatea.

2019: CAC-AK ZIFRATAN

900

CHILDREN'S
ADVOCACY
CENTERS

900 Children's Advocacy Center baino gehiago eta 367.000 haur eta nerabe artatu dituzte Estatu Batuetan, AEBko Justizia Sailaren menpe dagoen National Children's Alliance erakundeak koordinatuta.

ABUSUAK
JASAN DITUZTEN
367.000
HAUR ARTATU
DIRA

2
MILIOI

Sexu-indarkeriaren prebentzioan trebatutako **2 milioi** profesional baino gehiago.

1
MILIOI

Milioi bat senidek eta biktimgandik hurbil dauden pertsonak babesa jaso dute.¹⁴

¹⁴ National Children's Alliance (2019). Impact Report 2019. One Voice, Stronger. <http://www.nationalchildrensalliance.org/>

CAC zentroyen abantailak haurren sexu-abusuaren aurreko beste erantzun-mota batzuekin alderatuta: ¹⁵

	CAC (Children's Advocacy Centers)	Zirkuitu tradizionala
Elkarrizketak diziplina anitzeko taldeekin	% 28	% 6
Elkarrizketen ikus-entzunezko grabazioa	% 52	% 17
Gizarte-zerbitzuekin eta poliziarekin batera egindako elkarrizketak	% 81	% 52
Arreta psikologikoa	% 72	% 31
Familiatik ateratakoak	% 17	% 4
Haurrak elkarrizketatzeko diseinatutako espazioak	Beti	la inoiz ez

Ameriketako Estatu Batuetan eta Europan egindako ikerketen arabera, **epaiketen eta zigorren kopurua bikoiztu eta hirukoiztu egin da** CAC zentroak ezarri ondoren.

Ameriketako Estatu Batuetan, **CAC zentroetan artatutako gurasoen % 97k uste du beren seme-alabei laguntzeko baliagarri izan zaizkien baliabideak** jaso dituztela. Ehuneko horrek berak gomendatuko lioke egoera berean dagoen aitari edo amari CAC zentro batera joatea.

Gainera, CAC zentroetan ikusitako onuren artean, bigarren mailako biktimizazioa saihesteaz gain, biktimen testigantza kalitatea ere hobetzen dela ikusten da. Haurrek eta nerabeek informazio zehatzagoa ematen dute, giro lasaiagoan eta profesional kualifikatuen aurrean daudelako.

Datu horiek gorabehera, **eredua ezartzen den leku bakoitzak ebaluazio independente eta zorrotza egin behar du estaldurari, emaitzei eta eraginari buruz.**

¹⁵ Cross, T.P., Jones, L.M., Walsh, W.A., Simone, M., Kolko, D.J., Szczepanski, J., Lippert, T., Davison, K., Cryns, A., Sosnowski, P., Shadoin, A., & Magnuson, S. (2008). Evaluating Children's Advocacy Centers' response to child sexual abuse. *Juvenile Justice Bulletin*, 1-11. Elmquist, J., Shorey, R.C., Febres, J., Zapor, G., Klostermann, K., Schrat-ter, A. & Stuart, G.L. (2015). A review of Children's Advocacy Centers' (CACs) response to cases of child mal-treatment in the United States. *Aggression and Violent Behavior*, 25, 26-34. Herbert, J.L. & Bromfield, L. (2016), Evidence for the Efficacy of the Child Advocacy Center Model: A Systematic Review. *Trauma, Violence, & Abuse*, 17, 341-357. National Children's Alliance (2019). Impact Report 2019. One Voice, Stronger. <http://www.nationalchil-drensalliance.org/>

CAC zentroyen beste jardunbide on batzuk

CAC zentroak zenbait neurri ezartzen hasi dira haurren edo nerabearen parte-hartzea errazteko eta bigarren mailako biktimizazioa saihesteko:

Haurri edo nerabeari ahozko epaiketaren egunean deklaratzeko **telebista-zirkuitu itxi baten** bidez, ustezko erasotzailearekin aurrez aurre egotea saihesteko. Horri esker, haurrak edo nerabeak ingurune atsegin batetik egin ahal izango du lekukotza, eta haurren eta gazteen biktimologian aditua den pertsona batek elkarrizketatuko du, eta ez zuzenean esparru judizialeko profesional ugariak.

Epaiketan deklaratzeko haurra **eroso sentiaraziko duten objektuak** erabiltzea (jostailu bat, panpina bat), lekukoaren antsietatea murrizteko eta adierazpen osoagoak eta zehatzagoak errazteko.

Deklarazioan zehar haurren edo nerabearen ondoan egongo diren pertsonak baimentzeak galdeketa eragindako antsietate-maila murriztu dezake, eta deklarazioa hobetu.

Laguntza eskainiko dieten txakurrak erabiltzea (**facility dogs, courthouse dogs edo therapy dogs**) haurrekin edo nerabearekin zentroetan egingo diren lehen elkarrizketetan, epaiketaren prestaketan eta epaiketan bertan¹⁶.

Neurri horiek guztiek oso ondorio positiboak erakutsi dituzte deklaratu behar duen haurrengan edo nerabearengan, eta, beraz, epaiketa behar bezala egiteko orduan. Hori positiboa da biktimarentzat, ustezko erasotzailearentzat eta kasuan inplikaturako profesionalentzat.

¹⁶ Lagun egiten duten txakurren erabilerak praktika medikoan du oinarria, behar bezala entrenatutako txakur horiekin kontaktuan egotean haurren edo nerabeen antsietate-maila murrizten dela ikusi baita, haur edo nerabeek egoera estresagarri bat jasaten dutenean. Praktika hori esparru judizialera estrapolatu duten azterlanek ere egiaztatzen dute eraginkorra dela haurren edo nerabeen antsietatea eta ezinegona murrizteko eta, beraz, deklarazio osoagoak eta zehatzagoak lortzeko. Interesgarria izan daiteke, adibidez, Europar Batasunak finantzaturako proiektu hau: "FYDO - Facility Dogs in Europe". <https://victimssupport.eu/news/new-eu-project-facility-dogs-tosupport-victims-in-belgium-france-and-italy/>

**EROSOTASUNA
BABESA
LAGUN EGITEA**

Barnahus eredia European

CAC zentroak egokitzeko, 1998an Barnahus izeneko zentro bat sortu zen Reikiaviken (Islandia), sexu-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeak ebaluatzeko haurren babes-sistemak zuzenduta. Eredu berri horrek tresna berri bat hartzen zuen barnean: biktima izan den haurra-ekin edo nerabearekin elkarrizketa forentsea egitea, telebista-zirkuitu itxi bidez eta esparru judizialeko ordezkari baten aurrean. Horrek bermatzen zuen proba epaiketarako baliozkoa izatea eta aurrez eraturako froga gisa konfiguratzeko.

BARNAHUS ETXEAK



Herrialdearen arabera, Barnahus etxeak hainbat administrazioen menpe egon daitezke:

Udal-gobernua eta gizarte-zerbitzuak

Haurrak Babesteko Saila

Segurtasun Saila

Justizia Saila

Osasun Saila

Gainera, sexu-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeei soilik eman diezaiekete arreta, edo baita etxeko indarkeriaren edo genero-indarkeriaren biktimei edo beste tratatu txar fisiko edo psikologiko batzuen biktimei ere, Suedian gertatzen den bezala.¹⁷

Oinarri komuna diziplinar-teko lana eta sailen arteko lankidetzak da, haur eta nerabeentzako espazio atsegina batean.

Eredua ez da inoiz estatikoa edo finkoa, eta aplikatzen den herrialdearen berezitasunen mende dago.

Bai Nazio Batuek eta bai Europako Kontseiluak Barnahusen sorrera sustatzen dute. Azken hamar urteetan, 50 baino gehiago ireki dira iparraldeko herrialdeetan, besteak beste Suedian, Norvegian eta Danimarkan, baina baita Zipren, Polonian, Kroazian, Eslovenian eta Ingalaterran ere.

¹⁷ Johansson, S., Stefansen, K., Bakketeig, E. eta Kaldal, A. (ed.) (2017). Collaborating against child abuse exploring the Nordic Barnahus model. Palgrave Macmillan.

Islandiako, Suediako, Norvegiako eta Danimarkako Barnahus eredu berrikuspena


Lehenengo Barnahus zentroaren sorrera-data eta herrialdea/ Barnahus kopurua herrialdean	Kasuak eta xede-taldea		Coordinación y colaboración	
	Adin-taldea	Abusu mota	Kasu motak	Koordinazio nagusia
Islandia 1998 1 Barnahus	15 urtetik beherakoak	Sexu-abusua, eta, 2015etik, baita indarkeria fisikoa ere.	Poliziak eta haurrak babesteko sistemak jakinarazitako kasuak, abusuaren susmoa dagoenean.	Haurrak Babesteko Gobernu Agentzia
Suedia 2006 30 Barnahus	18 urtetik beherakoak	Sexu-abusua eta indarkeria fisikoa. Emakumeen genitalen mutilazioa, indarkeriaren lekuko zuzena edo zeharkakoa, ohorezko krimenak, beste haur batzuei sexu-abusuak egiten dizkieten haurrak (hala dagokionean), gehi tokiko beste bariazio batzuk	Haurrak babesteko sistemak, poliziak eta fiskaltzak ekarritako kasuak.	Hasieran, proiektu pilotua, Justizia Ministerioak eta nazio-mailako koordinazio interagentzialeko taldeak gidatua. Gaur egun, ez dago estatu mailako koordinazio-agentzia zentralik. Barnahus zentroen sare nazionala Save the Children Suediak koordinatu zuen lehendabizi, eta 2016tik aurrera Haurren abusurako Gaitasun Zentro Nazionalak (Barnafrid), Save the Children Suediarekin lankidetzan.
Norvegia 2007 11 Barnahus	16 urtetik beherakoak eta adimen-urritasuna duten helduak	Sexu-abusua, zuzeneko eta zeharkako indarkeria, homizidioa eta emakumeen genitalen mutilazioa	Poliziak jakinarazitako kasuak bakarrik: eragindako alderdiak eta lekukoak	Polizia-zuzentaraua eta estatu mailako Barnahus Batzordea
Danimarka 2013 5 Barnahus (+3 satelite)	18 urtetik beherakoak	Sexu-abusua eta indarkeria fisikoa	Haurrak babesteko sistemak kudeatutako kasuak, polizia edota osasun-sistema tartean daudela	Gizarte zerbitzuen mahai nazionala

Iturria: Johansson, S., Stefansen, K., Bakketeig, E. y Kaldal, A. (eds.) (2017). Collaborating against child abuse exploring the Nordic Barnahus model. Palgrave Macmillan.

Araudia

Esku hartzen duten agentziak	Barnahuseko langileak	Barnahus erabiltzeko derrigortasuna	Barnahus etheen araudi berezia
Haurrak babesteko sistema, osasuna, polizia, gorreak, epaitegiak eta fiskaltzak	Psikologoak, gizarte-langileak eta kriminologoak	Ez esplizituki Barnahus etxeena, baina bai instalazioak erabiltzearena	Ez dago Barnahus etheen lege espezifikorik, baina Haurrak Babesteko Legeak (80/2002) eta Prozedura Kriminaleko Legeak (88/2008) Barnahus ereduaren erabilera babesten dute.
Haurrak babesteko sistema, osasuna, polizia, fiskaltza eta auzitegiko medikuntza	Psikologoak eta gizarte-langileak; polizia zentroren batean	Ez	Ez dago Barnahus zentroetarako lege espezifikorik, baina Polizia Nazionalaren gidalerro nazionalak Barnahus ereduaren estandarrak jasotzen dituzte.
Polizia, fiskaltza eta auzitegi-medikuntza	Psikologoak eta gizarte-langileak	Bai, poliziarentzat eta fiskaltzarentzat.	Legearen arabera: prozedura kriminalaren akta eta ikerketa-elkarrizketa arautzea (FOR-2015-09-24-1098)
Haurrak babesteko sistema, polizia, fiskaltza eta osasun-sistema	Psikologoak eta gizarte-langileak	Bai, haurrak babesteko sistema, kasuak polizia edota osasun-saila ere inplikatzeko badu.	Legearen arabera: gizarte-zerbitzuak finkatzeko Legea (1284) eta Haurren Etxearen Agindua (2013/10/01eko 1153).Gizarte Zerbitzuen Mahai Nazionalak Barnahus ereduaren kalitate-estandarrak txertatu.

BARNAHUS =



Bai CAC zentroak, bai Barnahus ereduak ate bakar baten printzipioak gidatzen ditu –“One door principle”–, eta horrek esan nahi du profesional guztiak leku berean biltzen direla haurra edo nerabea artatzeko, eta ez duela hark leku batetik bestera joan behar, ibilbide luzea eginez taldeen eta profesionalen egoitzetan.

Oro har, Islandian ezarritako hasierako Barnahus ereduak honako hauek hartzen ditu barnean:

- **Jakinarazpen- salaketa- eta ebaluazio-prozesuan parte hartzen duten sailtako profesionalak osatutako taldea:** gizarte-zerbitzuetako, hezkuntza-arloko, polizia-arloko edo sistema judizialeko profesionalak, haurraren edo nerabearen ebaluazio forentsea egin behar den erabaki aurretik kontsultatzen direnak.
- **Auzitegi-esplorazioko talde bat:** auzitegiko psikologo bat eta auzitegiko mediku bat. Psikologoak elkarrizketa egingo du, eta, beharrezkoa izanez gero, aurrez eraturako proba izan daiteke. Auzitegiko medikuak haurra edo nerabea aztertuko du, eta sexu-indarkeriatik eratorritako adierazle fisikoak dauden ikusiko du.
- **Osasun mentaleko profesionalen talde bat,** biktima izan den haurrari eta haren familiari (gurasoak, anai-arrebak) orientazioa, laguntza eta tratamendua emateko.

Europako Barnahus ereduan txertatutako zerbitzuak eta koordinatutako profesionalak.



BARNAHUS =

INGURU
ATSEGINA

PRES-
TAKUNTZA

JUSTIZIA

PROTOKOLOAK

Barnahus etxe atsegina da sexu-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeentzat. Bizitegi-eremu batean kokatuta egon behar du. **Ez du ospitale baten ondoan egon behar, haur eta nerabe horiek ez baitaude gaixo, eta ez du auzitegi bati lotuta egon behar, ez baitute deliturik egin.**

Oro har, etxeak lau gela izaten ditu. Elkarrekin, gela horiek behar duten laguntza guztia eskaintzen diete haurrei, nerabeei eta haien familiei, gertaeraren berri eman eta sendatu arte: ikerketa poliziala eta judiziala, haurraren edo nerabearen babesa, osasun fisikoa (auztegiko mediku-azterketa barne), osasun mentala (auztegiko elkarrizketa barne), ongizatea eta biktimarentzako eta haren familiarentzako laguntza.

Baina, egitura fisikoaz gain, Barnahus ereduaren indarra profesionalen prestakuntzan eta talde-lanean datza, koordinazio-protokolo eraginkor eta estandarizatuen bidez bermatzen baita.

Azkenik, azpimarratu behar da Barnahus zentroen barruan sortutako esperientzia guztia zientifikoki baliozkotu duela ikerketak, eta, horren ondorioz, komunitatean haur eta nerabeek jasaten duten sexu-indarkeriaren erreferentzia-zentroa da.

Barnahus kalitate-estandararak

Nazio Batuen eta Europako Kontseiluaren jarraibideei jarraituz, Barnahus ereduak hamar kalitate-estandar proposatzen ditu, hainbat testuingurutan inplementatzea sustatzeko.¹⁸

¹⁸ Europako Barnahus ereduaren estandararak Promise Proiektuaren webgunean aurki daitezke: <https://www.barnahus.eu/en/publication/standards/>

**1****HAURRAREN INTERES GORENA JARTZEA ESKU-HARTZEAREN ERDIGUNEAN**

Haurren edo nerabearen interes gorenak berari eta beraren familiari buruz¹⁹ hartzen diren erabaki guztiak gidatu behar ditu. Honela zehazten da:

- Haurrak eta nerabeak entzuna izateko eta informazioa jasotzeko duten eskubidea errespetatzea.
- Bigarren mailako biktimizazioa ekar dezaketen egoerak saihestea.
- Ebaluazio-prozesuan beharrezkoak ez diren atzerapenak saihestea.

**2****DIZIPLINA ANITZEKO ETA SAIL ARTEKO ESPARRU ARAUTZAILE FORMAL BATETIK LAN EGITEA**

Barnahus ereduako talde profesionalak diziplina anitzekoak dira, eta, akordio formal baten bidez, hautemate-, jakinarazpen-, ebaluazio- eta salaketa-prozesuan parte hartzen duten sail guztiak hartzen dituzte barnean.

Barnahus zentroak tokiko edo nazioko agintarien onespena dute.

**3****HAUR ETA NERABE GUZTIAK SARTZEA ZENTROAREN ERABILTZAILA GISA**

Barnahus zentroek diskriminaziorik ezaren printzipioa bete behar dute, eta ezin dute baztertu indarkeriaren ustezko biktima den haur edo neraberik.

Gainera, arreta berezia eskaini behar zaie honako arrazoi hauen ondorioz egoera ahulagoan dauden haur eta nerabeei: adina, jatorrizko herrialdea, sexu-orientazioa edo desgaitasunak edo premia bereziak.

19 Adingabearen interes gorenak zein den ebaluatzeko, Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmenak emandako gida hartuko da erreferentziatzat, haurrak bere interes gorenak funtsezko baldintza izateko duen eskubideari buruzko 14. ohar orokorra (2013) (3. artikulua, 1. paragrafoa).



4

HAUR ETA NERABEENTZAKO INGURU ATSEGINA ESKAINTZEA

Barnahus zentroek honako ezaugarri hauek izan behar dituzte:

- Irisgarriak izan behar dute, bai garraio publikoan bai ibilgailu pribatuan joan ahal izateko.
- Desgaitasunak edo premia bereziak dituzten haur eta nerabeei egokituta egon behar dute.
- Bizitegi-eremuetan egon behar dute, eta ez dira identifikatu behar indarkeriaren biktimetzako berariatzko gune gisa.
- Haur eta nerabeei egokitu-tako dekorazioa izan behar dute. Ezinbestekoa da bi elkarrizketa-gela izatea eta, kasu batzuetan, baita bi itxarongela ere, adin desberdinetara egokituak.
- Haurraren edo nerabearen pribatutasuna bermatu behar da areto guztietan.
- Kasu guztietan, biktimaren eta ustezko erasotzailearen arteko kontaktua saihestu behar da.



5

KASUAREN SAIL ARTEKO KUDEAKETA

Detekzio-, jakinarazpen-, ebaluazio- eta salaketa-prozesuan inplikaturako sail guztien artean koordinatu behar da kasu bakoitzean egin beharreko urratsen kudeaketa eta plangintza.

Esplorazioak eta probak ez errepikatzeke, eta, horrela, bigarren mailako biktimizazioa murrizteko, beharrezkoa da sailek alde aurretik akordio bat lortzea haietako bakoitzak egingo dituen zeregin eta funtzioei buruz.

Gainera, erreferente den profesional bat egon behar da, kasuaren jarraipena egiteko, haurrak edo nerabeak une bakoitzean dituen beharrak baloratzeko eta taldearekin lotura ezartzeko.

6

AUZITEGI-ELKARRIZKETA

Barnahus ereduan, auzitegi-elkarrizketa sexu-indarkeriaren biktimen ebaluazioan aditua den psikologo batek egiten du, ebidentzian oinarritutako protokolo eta jardunbideei jarraituz, lortu beharreko proben kantitatea eta kalitatea bermatzeko horrela²⁰.

Profesional batek egiten du elkarrizketa, baina parte hartu beharra duten taldekide guztiek telebista-zirkuitu itxi bidez egin dezakete, edo, ondoren, grabazioa bistaratuz.

Elkarrizketa grabatzeak aurrez eraturako proba egitea ahalbidetzen du, eta horri esker, biktimak ez du epaiketara joan beharrik izango. Baliozko froga izan dadin, epaiketa batean egon ohi diren pertsona guztiak joango dira elkarrizketara, bi noranzkoko ispilu baten bidez: epailea, fiskala, defentsako eta akusazioko abokatuak, etab. Elkarrizketan zehar, defentsak elkarrizketatzaileak biktimari egingo dizkion galderak jaso ditzake. Akusatuak lekukotasuna ikus dezake, hala eskatzen badu, ikus-entzunezko transmisioaren bidez.

Elkarrizketaren helburu nagusia haurraren edo nerabearen bigarren mailako biktimizazioa saihestea da, eta ahalik eta informazio gehien lortzea haren kontakizun asketik abiatuta, akusatuaren eskubideak errespetatuz.

20 Barnahus zentroetan egiten den auzitegi-elkarrizketa NICHD protokoloa da. Arestian esan bezala, biktima diren haurrentzako elkarrizketa-gida bat da, balio handikoa. Ikusi erabilitako gidak eta protokoloak hemen: <http://nichdprotocol.com/> <https://www.nationalcac.org/> Juarez, J.R. y Álvarez, F. (2018). Evaluación psicológica forense de los abusos y maltratos a niños, niñas y adolescentes. Guía de buenas prácticas. Asociación de Psicólogos Forenses de la Administración de Justicia.



7

MEDIKU-AZTERKETA

Mediku-azterketak eta -tratamenduak Barnahusen barruan egiten dira, ospitaleko tratamendua behar dutenak izan ezik. Sexu-indarkeriaren biktimen ebaluazioan espezializatutako profesionalak egiten dituzte.



8

ZERBITZU TERAPEUTIKOAK

Barnahus zentroek tratamendu psikologikoa eskaintzen diete behar duten haur eta nerabeei.²¹

Era berean, krisi-uneetan haur edo nerabeei nahiz haien familiei arreta eskaintzen dieten eta laguntzen dieten profesionalak daude.

9

ETENGABEKO PRESTAKUNTZA ETA GAITASUNEN GARAPENA

Erregulariki, Barnahus eredu inplikaturako sailtako kide eta profesionalak berriazko prestakuntza jasotzen dute, indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeei eta haien familiei arreta egokia emateko.

10

PREBENTZIOA: INFORMAZIOA PARTEKATZEA, SENTSIBILIZAZIOA ETA KANPO-KOMPETENTZIA ERAIKITZEA

Barnahus zentroek beren esku-hartzeen datuak eta estatistikak lortzen dituzte, eta ikertzaileekin, profesionalekin, arduradun tekniko eta politikoekin eta, oro har, herritarrekin partekatzen dituzte, haurren eta nerabeen aurkako indarkeriari buruz eta prebentzioan gizarateak duen rolari buruz sentsibilizatzeko, bai eta ebidentzian oinarritutako politikak eta esku-hartzeak babesten dituzten azterlanak eta ikerketak errazteko ere.

Estandarrak betetzen diren ebaluatzea

Barnahus zentroek kalitate-estandarrak betetzen diren ebaluatzeko tresna bat dute. Jarraipen-tresna (edo tracking tool) deiturikoak zentroen kalitatea mantentzen eta haien funtzionamendua hobetzen laguntzen du, onuradunen –haurrak, nerabeak eta haien familiak– kanpoko balorazioaren bidez, eta, barnean, inplikaturako profesionalen balorazioaren bidez.²²

21 Eredutera terapeutikoa TF-CBT da.

22 The PROMISE Tracking Tool. <https://www.barnahus.eu/en/publication/tracking-progress-towards-meeting-the-barnahus-qualitystandards/>

BARNAHUS ETXEAK EUSKADIN

ZERGATIK DIRA BEHARREZKOAK?

Etxe hauen eraginkortasuna ebidentzian oinarritzen da

Ebidentzia klinikoak eta enpirikoak adierazten duenez, bai Estatu Batuetan, bai Europan, Barnahus etxeak bigarren mailako biktimizazioa murrizteko eta sexu-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeei eta haien familiei tratu hobea emateko eraginkorrak dira. Zenbait ikerketaren arabera, esku-hartzze judiziala arintzen du eta atxiloketen eta epaiketen kopurua areagotzen laguntzen du.²³

Islandian, adibidez, Barnahus eredu-a aplikatu zenetik, hirukoiztu egin da haur eta nerabeei egindako sexu-biktimizazioaren kasuen kopurua, erasotzailea akusatua izan den kasuena, zehazki.²⁴ Horrek argi erakusten du biktimen detekzioa eta ebaluazioa hobetu direla, bai eta lekukotasun-frogen bilketa ere.

Europako eta nazioarteko gomendioa da

Europako Kontseiluak, haur eta nerabeekin justizia lagunkoiaren alde egiteko estandarretan, Barnahus etxeak erabiltzea gomendatzen du. Nazioartean, Haurren Eskubideen Batzordeak 2018an Espainian egindako azken oharretan (CRC/c/esp/CO/5-6)²⁵, administrazioen eta erakundeen arteko Estatuko koordinazio-esparru bat ezartzea gomendatzen da, haurren eta nerabeen aurkako indarkeria-egoerei behar bezala erantzuteko.

Barnahus etxeak premiazkoak dira, Euskadik Europako herrialde gehienen ildoari jarraitzea eta haur ahulenak babesteko aurrerapauso bat ematea nahi badugu.²⁶

Iparraldeko herrialde guztiez gain, beste batzuk ere, hala nola Alemania, Erresuma Batua, Polonia, Malta, Hungaria, Bulgaria, Lituania, Estonia eta Zipre, eredu hori ezartzen hasi dira. Espainian badugu esperientzia pilotu bat, Tarragonan egiten ari dena.

23 Cross, T.P.; Jones, L.M.; Walsh, W.A.; Simone, M.; Kolko, D.J.; Szczepanski, J.; Lippert, T.; Davison, K.; Cryns, A.; Sosnowski, P.; Shadoin, A. eta Magnuson, S. (2008). Evaluating Children's Advocacy Centers' response to child sexual abuse. U.S. Department of Justice. Office of Justice Programs. Office of Juvenile Justice and Delinquency Prevention.

Elmquist, J., Shorey, R.C., Febres, J., Zapor, G., Klostermann, K., Schratte, A. eta Stuart, G.L. (2015). "A review of Children's Advocacy Centers' (CACs) response to cases of child maltreatment in the United States". *Aggression and Violent Behavior*, 25, 26-34.

Herbert, J.L. eta Bromfield, L. (2016), "Evidence for the Efficacy of the Child Advocacy Center Model: A Systematic Review". *Trauma, Violence, & Abuse*, 17, 341-357.

Rasmusson, B. (2011). "Children's Advocacy Centers (Barnahus) in Sweden: Experiences of children and parents". *Child Indicators Research*, 4, 301-321.

24 Children's Commissioner (2017). Barnahus: Improving the response to child sexual abuse in England. UK: London. <http://www.childrenscommissioner.gov.uk>

25 Ikusi <https://www.bienestaryproteccioninfantil.es/fuentes1.asp?sec=1&subs=478&cod=3603&page=>

26 Council of Europe (2011). Guidelines of the Committee of Ministers of the Council of Europe on child-friendly justice. <https://rm.coe.int/CoERMPublicCommonSearchServices/DisplayDCTMContent?documentId=09000016804b2cf3>

"Convenio de Lanzarote para la protección de los niños contra la explotación y el abuso sexual", Espainiak 2007ko urriari sinatutakoa. https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2010-17392


Barnahus etxeak Euskadin: zer ekarpen egin dezakete?

Barnahus ereduak hobekuntza garrantzitsuak ekar diezazkioke gaur egun Euskadin sexu-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeei eta haien familiei arreta emateko dagoen sistemari. Besteak beste, honako hauek azpimarra daitezke:

- Haurren eta nerabeen interesari lehentasuna emateko eta haien beharrak begiradaren erdigunean jartzeko lege-agindua betetzen du.
- Aintzat hartzen du haurrek eta nerabeek entzunak izateko eta informazioa jasotzeko duten eskubidea²⁷.
- Bigarren mailako biktimizazioa murrizten du, eta haurren eta nerabeen suspertze psikikoa hobetzen du.
- Kasu horietan inplikaturako sailen eta zerbitzuen arteko koordinazio erreala eta eraginkorra bultzatzen du.
- Arreta-sistemara sartzeko ate bakarra izatea esan nahi du.
- Herritarrek, oro har, eta gizarte-zerbitzuek kasuei buruzko jakinarazpenak egitea errazten du.
- Biktima diren haur eta nerabe guztiei kalitatezko arreta publikoa eta unibertsala emango zaiela bermatzen du, familia babesleetatik datozen ala ez kontuan hartu gabe.
- Erantzun arina ematen laguntzen du.
- Diziplina anitzeko arreta integrala bermatzen du, prestakuntza espezializatua duten profesionalen kontura.
- Ebaluazio- eta esku-hartzeko prozedura eta teknika eraginkorrak, enpirikoki baliozkotutak, homogeneoak eta kulturalki sentikorrek aplikatzen direla ziurtatzen du.
- Auzitegiko eta osasun-azterketako zereginak eta zeregin terapeutikoak bereizten ditu, bien artean gerta daitezkeen interferentziak saihestuz.
- Babesa eta laguntza eskaintzen die familia babesleak ez diren familiei.
- Ereduaren funtzionamendua etengabe monitorizatzeko eta haren kalitate-estandarrak betetzeko sistemak ditu.
- Ezagutzak eta esperientziak trukatzeko, lankidetzan aritzeko eta berritzeko Europako eta nazioarteko sareetan sartzea dakar.


27 Haurrek eta nerabeek beraien eragina duten erabakietan parte hartzeko duten aukera aztertzeko interes-eredu baterako, ikusi Gal, T. (2017). "An ecological model of child and youth participation". Children and Youth Services Review, 79, 57-64.

Biktima diren haur eta nerabeen beharrak leku nagusia hartuko duen sistema baterako trantsizioa ahalbidetu behar du Barnahus ereduak.



Barnahus etxe baten proposamen pilotua Euskadin


Barnahus ereduak potentzial handia du Euskadin, erakutsi baitu profesionalak aurre egin beharreko erronka askori erantzuten diela haur eta nerabeen aurkako ustezko sexu-indarkeria kasu baten aurrean:



Suedia, Danimarka eta Norvegiako esperientziak erakusten dutenez, Barnahus ereduak herrialde bakoitzeko sistema juridikoen beharretara egokitu daitezke. Alde horretatik, jarraian **Barnahus etxeen proposamen bat aurkezten da, Euskadiren berezitasunetara egokitua.**

Inplikaturako sailak

Barnahus ereduaren funtsa erakundeen arteko koordinazioa da. Euskadin, sail hauek parte hartu beharko lukete, Gizarte Politiken arloa buru dela:



Gainera, Poloniaren adibideari jarraituz, oso baliotsua litzateke Abokatu-
tuen Elkargoen laguntza izatea, biktima diren familiei eta haur eta nerabe-
beei aholkularitza, informazioa eta defentsa espezializatua eskaini ahal
izateko.

Espazioa

Barnahus etxearen barrualdeko dekorazioa haur eta nerabeentzat ego-
kituta egon behar da, eta, hala, ezinbestekoa da bi elkarrizketa-gela
izatea eta, zenbait kasutan, baita bi itxarongela ere, adin eta interes
desberdinetarako egokiak.

Beraz, hainbat espazio bereizi behar dira:



Kokapena

Garrantzitsua da Barnahus etxea osasun-erakundeetatik eta erakunde judizialeetatik bereiztea. Biktima diren haur eta nerabeak ez daude gaixo, eta ez dute delitu edo arau-hausterik egin. Beraz, Barnahus etxea egoitza-eremu batean kokatuta egon beharko litzateke, erraz iristeko moduan, eta epaitegietatik, ertzain-etxeetatik eta ospitaleetatik urrun.

Euskadin, hainbat etxe beharko dira, gutxienez bi Bizkaian, bi Gipuzkoan eta bat Araban. Kopurua gehiago zehaztu beharko da pilotajearen lehen fasearen ondoren.

Erabiltzaileak

Hasiera batean, Euskadiko Barnahus etxeek sexu-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeekiko ebaluazioa eta esku-hartzea izango dute ardatz, baina epe luzera beste indarkeria-mota batzuen biktima diren haur eta nerabeei arreta eman ahal izango diete, indarkeriaren aurrean haurrak eta nerabeak erabat babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorriz.

Bereziki garrantzitsua da etxeek, Barnahus ereduaren kalitate-estandarrei jarraituz, ez diskriminatzea, ezein arrazoiengatik, indarkeriaren ustezko biktima diren haur edo nerabeak, ez eta familia bakar bat ere, eta, beraz, profesional espezialistak izatea honako arlo hauetan:

- 0 eta 3 urte bitarteko haurrak.
- Premia bereziak edo desgaitasun fisiko, sentsorial, intelektual edo psikikoak dituzten haurrak.
- Jatorri atzerritarreko haurrak eta nerabeak, lagunduta daudenak edo ez.
- LGTBI kolektiboko haurrak eta nerabeak.
- Gizarte-zerbitzuetan eta babes-sisteman artatutako haurrak eta nerabeak.

Profesionalak

Barnahus etxeetako profesionalak sentsibilitate berezia izan behar dute haurren eta nerabeen aurkako indarkeriaren gaiari buruz, prestakuntza egokia izan behar dute, bai eta esperientzia egiaztatua biktimekiko esku-hartzean ere.

Bi talde behar dira: bata finkoa, beti Barnahus etxean egongo dena, eta bestea mugikorra, beharrezkoa denean bertaratuko dena. Zentroak ondo funtzionatzen duela bermatzeko, beharrezkoa izango da txandak betetzeko adina langile izatea.

Profesionalen prestakuntza

Euskadiko Barnahus etxeetako profesionalak haurren eta gazteen biktimizazioan trebatuta eta espezializatuta egon beharko dute, garapenaren biktimologiaren oinarri teorikotik (Finkelhor, 2013).²⁸

Bestalde, prozesu penalari, Biktimaren Estatutuari eta Barnahus ereduari buruzko prestakuntza juridiko espezifiko ere izan beharko dute.

Haurrei eta nerabeei elkarrizketak egiten dizkieten psikologoek enpirikoki baliozkotutako eta nazioartean onartutako eredu eta gidetan prestatuta egon beharko dute, eta malgutasunez jokatu beharko dute ezaugarri edo behar bereziak dituzten haur eta nerabeei aplikatzeko orduan (adibidez, eskolaurrekoak, desgaitasun edo behar bereziak dituztenak, gertatutakoa adierazi nahi ez dutenak). Elkarrizketetarako, National Institute of Child Health and Human Development (NICHD) erakundearen protokoloa erabiliko da, hainbat azterlanetan frogatutako balio handiko elkarrizketa-gidaliburua²⁹.

Laguntza psikologikoko esku-hartzeak egiten dituzten psikologoek ebidentzian oinarritutako ebaluazio- eta tratamendu-teknika eta -prozedurei buruzko prestakuntza izango dute –eta, hala badagokio, egiaztagiria ofizialak izango dituzte–, besteak beste, trauman ardatz-tutako terapia kognitibo-konduktualari buruzkoa (TF-CBT³⁰). Psikologo horiek prestatuta egon beharko dute, halaber, nahasmendu psikopatologikoak edo trauma konplexuak dituzten haurrak eta nerabeak identifikatzeko, tratamendu psikologikoko edo psikiatrikoko zerbitzu espezifikoetara bideratu beharra gerta baitaiteke (Haur eta Gazteen Osasun Mentaleko Sarea edo Haurrak Babesteko Zerbitzuak).

28 Finkelhor, D. (2013). "Developmental victimology: The comprehensive study of childhood victimization". Hemen: R.C. Davis, A.J. Lurigio, A.J. eta S. Herman (eds.), *Victims of crime* (4 ed.) (9-34. or.). Sage..

29 Ikusi webgune ofiziala: <http://nichdprotocol.com/>

30 Cohen, J.A.; Mannarino, A.P. eta Deblinger, E. (ed.) (2012). *Trauma-focused CBT for children and adolescents: Treatment applications*. Guilford Press. <https://tfcbt.org/>

PRESTAKUNTZA =

**PRESTAKUNTZA
JURIDIKOA**

**NICHD
ELKARRIZKETA-
PROTOKOLOA**

**ELKARRIZKETA ETA ESU-
HARTZE PSIKOLOGIKOKO
PROTOKOLO BATERATUAK,
BALIOZKOTUAK, NAZIOARTEAN
ONARTUAK ETA MALGUAK**

**TF-CBT
TRATAMENDU-
PROGRAMA**

**GARAPENAREN
BIKTIMOLOGIA**

Administrazio-laguntzako langileez gain, profesional tekniko finko hauek izango dira Euskadiko Barnahus etxeetan:

TALDE FINKOA

Barnahus etxearen koordinatzailea

Profesional honek Barnahus etxeko zuzendaritza hartuko du bere gain, eta monitorizatzeko eta etxearen funtzionamendu egokia eta kalitate-estandarrak betetzen direla bermatzeko ardura izango du. Beste erakunde eta zerbitzu batzuekiko koordinazioa ere bere gain hartuko du.

Gizarte-langilea

Profesional honek lehen harrera eta informazio-bilketa egingo du. Familiarekin eta, hala badagokio, haurrekin edo nerabearekin hasierako elkarrizketa egingo du. Baloratuko du ea kasua haurra edo nerabea zehatzago aztertzea eta sistema judizialari jakinaraztea eskatzen duen balizko delitua den ala ez. Aholkularitza, laguntza eta hasierako babes emango die haurrari edo nerabeari eta haren familiari, eta jarraitu beharreko prozesuaren berri emango die.

Psikologoa Esplorazio-elkarrizketak

Psikologo honek esplorazio-elkarrizketak egingo ditu susmorik izanez gero, bai eta elkarrizketa hedatuak ere, beharrezkoa denean. Haurren edo nerabearen egoera emozionalaren ebaluazioa ere egingo du, eta beharrezkoa den ondorengo tratamenduaren plangintzan parte hartuko du.

Psikologoa Laguntza psikologikoa

Psikologo honek aholkularitza, euskarria eta laguntza psikologikoko esku-hartzeak eskainiko dizkie haurrari edo nerabeari, bai eta babesle ez diren senideei ere, beharrezkoa denean.

Barnahus etxeetako profesionalak taldean lan egingo dute beti, ikuspegi integral eta diziplinartekotik. Haur edo nerabe bakoitzari eta haren familiari profesional bat esleituko zaio erreferente gisa, eta hala jardungo du kasuan esku hartzen duten gainerako profesional eta zerbitzuei begira ere. Informazioa zentralizatzeaz eta Barnahus etxeko taldeak egin beharreko jarduerak adostez eta errazteaz arduratuko da, bai eta jarduera hori esku hartzen duten zerbitzuen sarearekin eta profesionalekin koordinatzeaz ere.

Talde mugikorreko profesionalak Barnahus etxearekin lotuta egongo dira, baina ez dira beti bertan egongo. Beren zereginak egitera baino ez dira joango:

TALDE MUGIKORRA

Instrukzioko epailea (*)

Instrukzio-epailea da ustezko delitu-egitate baten ikerketa bideratzeko eskumena duen organoa. Ikertutako pertsonaren eta ustezko biktimaren deklarazioak agindu eta gauzatzen ditu, eta prozeduraren instrukzioarekin amaierara arte jarraitzea edo ikerketaren emaitzen arabera artxibatzea erabaki dezake.

Aurrez eraturako proban parte hartzeko joango da Barnahus etxera.

Fiskaltzaren ordezkaria (*)

Ministerio Fiskalaren ordezkariari legez dagokio instrukzio-fasean frogak egiteko eskatzea, delitu bat egiteagatik inputatutako pertsonaren aurkako akusazioa egitea eta inputatuaren, ustezko biktimaren eta beste lekuko batzuen deklarazioetan esku hartzea. Adingabeak babesteko funtzioa ere badu.

Aurrez eraturako proban parte hartzeko joango da Barnahus etxera.

Pediatra Auzitegiko medikua

Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutua(*)

Pediatrak haur edo nerabeari azterketa medikoa egiteko beharra baloratuko du, haren egoeraren jarraipena egingo du, eta, beharrezkoa izanez gero, sexu-indarkeriak izan ditzakeen ondorio fisikoak aztertuko ditu.

Auzitegiko medikuak egon daitezkeen adierazle fisikoen ebaluazioa egingo du, eta proba fisikoak eta biologikoak bilduko ditu.

Auzitegiko psikologoa

Talde Psikosozial Judiziala(*)

Talde Psikosozial Judizialeko auzitegiko psikologoak egingo du aurrez eraturako probaren elkarrizketa haurarekin edo nerabearekin. Elkarrizketa egin ondoren, kontakizunaren sinesgarritasuna ere balioetsiko du, eta eskatzen zaizkion beste aditu-froga batzuk egingo ditu.

Abokatu espezializatua

Hautzarotan espezializatutako abokatu arduratuko da ikertutako egitatean inplikaturik ez dauden familiako kideei auziko prozesua azaltzeaz eta prozesu judizialarekin lotuta izan ditzaketen zalantzei erantzuteaz. Gainera, defentsa espezializatua eskainiko die hala nahi duten familiei.

Polizia

Polizia-agente bat arduratuko da salaketak jasotzeaz eta inplikaturik beste pertsona batzuei deklarazioa hartzeaz. Gainera, kriminologiari buruzko ezagutzak emango ditu.

(*) Indarkeriaren aurrean haurrak eta nerabeak erabat babesteko Lege Organiko berriak arlo horretako espezializazioa ezartzen die epaitegi eta auzitegiei laguntza espezializatua ematen dieten organo judizialei, fiskaltzari eta talde teknikoei. Zerbitzu espezializatu horiek Barnahus etxearekin koordinatu beharko dira, eta talde mugikorreko kide izango dira.

Haur eta nerabeekiko elkarrizketak Barnahus etxean, eta Talde Psikosozial Judizialarekiko koordinazioa

Bi elkarrizketa mota egitea beharrezkoa izan daiteke sexu-indarkeriaren biktima izan dela susmatzen den haur edo nerabe bati:

- Alde batetik, **esplorazio-elkarrizketak** daude; susmoren bat dagoen kasuetan egiten dira, nahiz eta poliziaren edo epaitegiaren aurrean salaketa jartzeko moduko adierazpenik edo elementu argi nahikorik ez egon. Esaterako, haurrak edo nerabeak abusu posible bati buruzko adierazpenak egiten dituen kasuetan, baina adierazpen horiek nahasiak, inkoherenteak, funtsik gabeak, partzialak edo antzekoak direnean. Kasu horietan, jokabidearekin lotutakoak edo sexu-jokabide ezohikoak edo problematikoak dira adierazle bakarrak, edota susmo-adierazleak daude ingurunean.

Elkarrizketa horiek beste iturri batzuetan bildutako informazioarekin osatu ohi dira. Sexu-biktimizazioa gertatu den argitzea dute xede. **Barnahus etxeko psikologoak egingo ditu elkarrizketa horiek.**

Normalean, esplorazio-elkarrizketa bakarra egiten da. Hala ere, elkarrizketa gehiago behar izaten dira batzuetan; halakoetan, **elkarrizketa hedatuaren** formatua hartzen du. Elkarrizketa hori beharrezkoa izaten da sexu-biktimizazioa gertatu dela pentsatzeko arrazoi esanguratsuak daudenean, baina haur eta nerabeak elkarrizketa bakarrean kontatzeko gai ez direnean eta denbora gehiago behar dutenean.

- Bestalde, **auzitegi-elkarrizketa** dago, epaile edo auzitegiek eskatuta egiten dena, haurren edo nerabearen lekukotza jasotzeko, aurrez eraturako froga gisa erabili ahal izateko. **Talde Psikosozial Judizialeko psikologoei dagokie elkarrizketa hori egitea.** Horretarako, Barnahus etxeko aretoak erabili ahal izango dituzte. Alderdi hori bereziki garrantzitsua da haurrak edo nerabeak aldeztu aurretik Barnahus etxean esplorazio-elkarrizketak edo elkarrizketa hedatuak izan dituenetan eta ingurunea ezagutzen duenean.

Barnahus etxeak eta Talde Psikosozial Judizialak oso koordinatuta lan egin beharko dute, esplorazio-elkarrizketak eta elkarrizketa hedatuak zein haur edo neraberri egingo zaizkion eta auzitegi-elkarrizketarako trantsizioa noiz eta nola egingo den adosteko.

Euskadiko Talde Psikosozial Judizialak Barnahus ereduaren elkarrizketa-protokolo berberak erabiltzen ditu aspalditik, eta horrek asko errazten du koordinazioa.

Ebidentzian oinarritutako ikasgaiak: elkarrizketa hedatua³¹

Gutxi gorabehera, sexu-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeen heren batek ez du horren berri ematen elkarrizketa bakar batean.

Horien artean, izugarri traumatizatutako biktimak daude, adin txikiagokoak, adimenezintasunak dituztenak, osasun mentaleko arazoak dituztenak, trauma konplexua dutenak, edo beste arrazoiren batengatik gertatutakoari buruz hitz egin nahi ez dutenak. Haur eta nerabe horiek denbora gehiago behar dute.

Kasu horietarako, elkarrizketa “hedatuko” protokoloak diseinatu eta probatu dira; hau da, auzitegi-elkarrizketako protokoloen egokitzapenak egin dira (adibidez, NICHDrren bertsio berrikusia). Protokolo horiek oso onartuta daude nazioarteko komunitatean, eta zortzi saio ere izan ditzakete.

Sexu-indarkeria gertatu dela susmatzeko arrazoi esanguratsuak daudenean eta haurra edo nerabea elkarrizketa bakar batean gertatutakoa azaltzeko gai ez denean, horrelako elkarrizketak erabiltzea gomendatzen dute hainbat adituk eta erakundek, hala nola American Professional Society on the Abuse of Children erakundeak.

Protokolo horiei buruzko ikerketak honako hau egiaztatu du:

- a. Ez dute positibo faltsuen arriskua areagotzen, galdera iradokitzaileak erabiltzearekin lotzen baitira horiek, ez elkarrizketa kopuruarekin.
- b. Kasuen bi herenetan, kontaktzea ahalbidetu dezakete.
- c. Sexu-indarkeriari buruzko informazio zehatzagoa eta osatuagoa lortzen lagundu dezakete, eta berme juridikoak errespetatzea ahalbidetzen dute.

Auzitegi-elkarrizketarako protokoloetan bezala, prestakuntza espezializatua eta trebakuntza espezifikoak duten profesionalak egingo dituzte.

Euskadiko Barnahus etxeetan egiten den elkarrizketa hedatua::

- Elkarrizketa hedatua ez da ohiko praktika izango; modu mugatuan erabiliko da, eta gomendatuta dagoen kasu zehatzetan soilik.
- Etorkizuneko prozesu judizial batean berme juridikoen zaintza ziurtatuta nahiz haurraren edo nerabearen kontakizuna kutsatu gabea dela bermatuta geratzeko moduan egingo da.
- Haurra edo nerabea gertatutakoa kontatzeko prest agertzen denean, elkarrizketa hedatua auzitegi-elkarrizketara igaroko da. Kasu horietan, bien arteko trantsizioa egokia izango dela bermatuko duen prozedura bat ezarri beharko da.

31 APSAC Taskforce (2012). “Practice Guidelines. Forensic Interviewing in Cases of Suspected Child Abuse”. American Professional Society on the Abuse of Children (APSAC).

Baugerud G.A., Johnson M.S. (2017). “The NICHDr Protocol: Guide to follow recommended investigative interview practices at the Barnahus”. In S. Johansson, K. Stefansen, E. Bakkeiteig eta A. Kaldal (eds.) Collaborating Against Child Abuse. Palgrave Macmillan.

Faller, K.C. (2016). “Disclosure failures: statistics, characteristics, and strategies to address them”. In T. O’Donohue eta M. Fanetti (eds.), Forensic Interviews Regarding Child Sexual Abuse. A Guide to Evidence-Based Practice (123.-140. or.). Springer.

Faller, K.C., Cordisco-Steele, L. eta Nelson-Gardell, D. (2010). “Allegations of sexual abuse of a child: what to do when a single forensic interview isn’t enough”. *Journal of Child Sexual Abuse*, 19, 572-589.

Williams, J., Nelson-Gardell, D., Faller, K.C., Tishelman, A. eta Cordisco-Steele, L. (2016). “Perceptions of the value of extended assessments to resolve allegations of sexual abuse: it’s the performance that counts”. *Journal of Social Service Research*, 42, 57-69.

Arreta terapeutikoa³²

Asko dira sexu-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeei eskaintzen zaizkien esku-hartze psikologikoak. Hala ere, ez dute frogatu guztiek eraginkortasunari buruzko ebidentzia zientifikorik. Horietako askok ez dute ebaluazio zorrotzik. Orain arte, **trauman ardaztutako orientazio-programa kognitibo-konduktualek lortu dituzte emaitzarik onenak, bereziki trauma osteko estresari, depresioari eta antsietateari lotutako sintomatologiaren tratamenduan.**

Ebidentzian oinarritutako beste programa batzuk ere badauden arren (adibidez, Eye Movement Desensitization and Reprocessing EMDR), **Trauma Focused Cognitive Behavioral Therapy** (TF-CBT; Cohen, Mannarino eta Deblinger, 2017) da ebidentzia empiriko eta nazioarteko aintzatespen handiena duena. Programa horrek hainbat terapia-modalitatetako elementuak (kognitiboa, jokabidezkoa, humanista, familiakoa eta atxikimenduzkoa) eta garapenaren neurobiologiaren ekarpenak biltzen eta konbinatzen ditu.

TF-CBT programa sexu-indarkeriaren (edo beste egoera traumatiko batzuen) biktima diren eta honako sintoma hauek dituzten 3-18 urte bitarteko haur eta nerabeei aplikatzen zaie: trauma osteko estresa, depresioa, antsietatea, errua, jokabide sexualizatua, edo sexu-biktimizazioarekin lotutako sentimendu, pentsamendu edo sinesmen distortsionatuak. Tratamendu hau ez da erabiltzen esperientzia traumatikoaren aurretik jokabide- edo emozio-arazo larriak zituzten haur eta nerabeekin.

Programa egituratua da, baina malgua, haurraren eta nerabearen eta haien familien behar berezietara egokitzeko. Iraupena ere malgua da; oro har, 12-18 asteko iraupena du (4-6 hilabete), baina 25 astera arte luza daiteke. Aste bakoitzean, 60 minutuko saioa egiten da. Hasieran, alde batetik, haurrarekin edo nerabearekin lan egiten da (30 minutu), eta bestetik, abusuzko jokabidea ez duten gurasoekin (30 minutu), eta azken fasean, berriz, elkarrekin lan egiten dute.

Esku-hartze horretan, haurrak edo nerabeak sexu-biktimizazioarekin lotuta dituen sinesmen eta egozpen distortsionatu edo asaldatzaileak jorratzen ditu TF-CBT programak, horri buruz hitz egiten laguntzeko testuinguru bat ematen dio, eta aurkituko dituen egoera estresagarriei aurre egiteko tresnak ematen dizkio. Abusuzko jokabidea ez duten gurasoen kasuan, beren ondoez emozionalari modu egokian aurre egiten laguntzen die, seme-alabekin behar bezala komunikatzen, eta azal ditzaketan arazoei aurre egiten, eta laguntza eman ahal izateko tresnak ematen dizkie. **TF-CBT programa eskaintzen duten psikologoek prestakuntza, gainbegiratze eta egiaztapeneko prozesu bat jaso behar dute aldeztu aurretik.**

32 Child Welfare Information Gateway. (2018). Trauma-focused cognitive behavioral therapy: A primer for child welfare professionals. U.S. Department of Health and Human Services, Children's Bureau.

Cohen, J. A., Mannarino, A. P., y Deblinger, E. (2017). Treating trauma and traumatic grief in children and adolescents (2nd ed.). Guilford.

Cummings, M., Berkowitz, S.J. y Scribano, P.V. (2012). Treatment of Childhood Sexual Abuse: An Updated Review. *Current Psychiatry Reviews*, 14, 599-607.

Parker, B. y Turner, W. (2013) Psychoanalytic/psychodynamic psychotherapy for children and adolescents who have been sexually abused. *Cochrane Database of Systematic Reviews*, Issue 7. Art. No.: CD008162.

The California Evidence-based Clearinghouse for Child Welfare. <https://www.cebc4cw.org/>
The National Child Traumatic Stress Network. <https://www.nctsn.org/>

Haur eta Nerabeen Babeserako Lurraldeetako Gizarte Zerbitzuekin (Foru Aldundiak) eta Haur eta Gazteen Osasun Mentaleko sarearekin koordinatzea

Sexu-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeen eta haien familien laguntza-edo tratamendu-beharrak askotarikoak izan daitezke, bizi izandako esperientziaren nahiz haurraren edo nerabearen eta haren ingurunearen historiaren eta ezaugarrien arabera. Oro har, **lau esku-hartze mota nagusi bereizten dira, eta ez dira elkarren artean bateraezinak:**

- a. Aholkularitza.** Egoera edo arazoaren aurrean (kasu honetan, sexu-biktimizazioa) jarduteko moduari buruzko informazioa edo orientazioa ematera bideratzen da, biktimarengan eta haren inguruko pertsonengan ager daitezkeen erreakzioak lantzeko jarraibideak barne hartuta (adibidez, haserre-sentimenduak, errua, segurtasunik eza). Lege-aholkularitza, eskura dauden laguntza-baliabide eta zerbitzuei buruzko informazioa ematea, sarbide-prozedura, kudeaketak, izapideak eta abar barne hartzen ditu, bai eta horietarako sarbidea edo koordinazioa erraztea ere.
- b. Euspena** (krisiaren uneko esku-hartzea). Biktimari eta haren familiari zuzenduta dago, sufrimendu- eta estres-sintoma akutuak dituztenean. Berehalakoa, laburra eta fokalizatua da. Helburu hauek ditu: desoreka psikologikoko prozesu akutua geldiaraztea, sintoma-adierazpenak eta sufrimendua arinduz; haurra edo nerabea eta familia egonkortzea eta estres gehigarritik babestea, anormaltasun- edo gaixotasun-sentimenduak murriztuz; konplikazio gehigarriak saihestea; funtzio psikikoak lehengoratztea, eta trauma osteko estresaren eragina prebenitzea.
- c. Laguntza psikologikoa (trauman ardaztutako tratamendua).** Sexu-biktimizazioan jartzen du arreta, iraupen laburrekoa edo ertainekoa da, eta haurrari edo nerabeari zein haren familiari zuzentzen zaio; trauma osteko estresaren sintomak ageri direnean edota agertzeko arriskua dagoela balioesten denean (antsietatearekin edo depresioarekin lotutakoak edo ez) eta haurraren edo nerabearen nahiz familiaren baliabide pertsonalak sintoma horiei aurre egiteko nahikoak ez direla ikusten edo aurreikusten denean aplikatzen da.
- d. Tratamendu psikologikoa edo psikiatrikoa.** Iraupen luzeko esku-hartzeak dira, eta trauma konplexuko egoeretan aplikatzen dira; zaugarritasun handiko inguruabar pertsonaletatik edo aurretiko bizi-esperientzia traumatikoetatik eratorritako kalte psikologiko larria duten haurrei edo nerabeei zuzentzen zaie. Beharrezkoa denean, tratamendu farmakologikoa ere izango du.

Barnahus etxeak aholkularitza, euspen eta laguntza psikologikoko esku-hartzeak egingo ditu (trauman ardaztutako tratamendua). Iraupen luzeko tratamendu psikologikoa edo psikiatrikoa behar duten haur eta nerabeak, kalte psikologiko larria eta trauma konplexua dutenak, Haurren eta Gazteen Osasun Mentaleko sare publikora bideratuko dira arreta emateko. Lurraldeetan haurrak eta nerabeak babesteko dauden gizarte-zerbitzuek artatzen badituzte, horiek hartuko dute beren gain esku-hartzea, eta tratamendua beren taldeek emango duten edo Osasun Mentaleko sarera bideratuko duten erabakiko dute.

Familiak

Sexu-indarkeriaren biktima diren haurrak edo nerabeak zaintzen dituzten gurasoak edo pertsonak funtsezkoak dira haien suspertu eta lehengoratzeko orduan.³³

Horregatik, Barnahus ereduari jarraituz, profesional batek hartzen ditu, eta semearen edo alabaren ebaluazioan egingo diren urrats guztiak azaltzen dizkie; justizia-sistemak nola funtzionatzen duen azaltzen die, bai eta biktima den haurrari edo nerabeari esperientzia horretatik suspertzen laguntzeko modurik onena zein den ere. Gurasoak eta zainzaileak ere inplikatzeko dira esku-hartze psikologikoan.

Biktima diren haur eta nerabe guztiak esku-hartze profesionala jaso behar dute, sintomatologia duten ala ez alde batera utzita. Halakorik agertzen ez bada, ez agertzea izango da helburua. Halakorik bada, gutxitzea edo arintzea eta berriro ez agertzea izango da helburua. Profesional espezializatuek eman behar dute esku-hartze profesionala. Haur edo nerabe bakoitzak behar duen esku-hartzea jaso beharko du, bere ezaugarri eta **behar bereziak kontuan hartuta**.

Esku-hartze profesionalean, nahitaez sartu behar dute erasotzaileak ez diren gurasoek —eta familiako beste kide batzuek, hala badagokie—. Aholkularitza eman behar zaie, bai eta kasu bakoitzean beharrezkoa den euspena eta laguntza ere. Geroko uneetan ager daitezkeen eta esku-hartze profesional berri bat gomendatzen duten alerta-seinaleak goiz antzematen irakatsi behar zaie gurasoei.

33 Pereda, N. (2011). Gizarte-laguntzaren garrantzia haurren sexu-abusuaren biktimekin esku hartzean: azterketa teorikoa. Haur eta Gazteen Psikiatria Aldizkaria, 4, 42-51.





EREDUAREN JASANGARRITASUNA EUSKADIN

Barnahus ereduaren arrakasta eta Europan izan duen ezarpen arrakastatsua elementu horien guztien konbinazioan datza, ereduak funtzionatzea eta kultura-eta antolaketa-ingurune desberdinetara egokitzea ahalbidetzen baitute. Funtsezko elementu horien baturak osatzen du Barnahus eredu.

Horietako batzuk bakarrik bere gain hartzeak ez du ereduaren funtzionamendu ona eta bideragarritasuna bermatzen. Beraz, **Barnahus eredu** Euskadin behar bezala ezartzeko, **baliabidearen estandarrak osotasunean txertatu behar dira, horiek bermatzen baitituzte baliabidearen kalitatea eta jasangarritasuna.**

Zer gerta daiteke Euskadin haur edo nerabe batek sexu-indarkeria jasan duela esaten duenean?



Aneren hasierako elkarrizketa, grabatua izan dena, epaimahaiaren aurrean erakusten da, ebidentzia gisa. Epaimahaiak hala erabakitzen badu, ez da beharrezkoa izango Ane epaiketara joatea.



Anek bere historia azalduko dio psikologo espezializatu bati. Norazko bakarreko ispilu baten bidez, epailea, fiskala, ikertutako pertsona eta defentsaren abokatua egongo dira elkarrizketan; grabatu egingo da.



Behar izanez gero, Anek laguntza edo tratamendu psikologikoa jasoko du, lehenagotzen laguntzeko.



Barnahus etxeko sendagile batek aztertuko du.



Barnahus etxean, Anek haur-biktimizazioan aditua den profesional batekin hitz egingo du, eta hark egoera balioetsiko du.



Aneren Amak bere alabak izango duen prozesu osoari buruzko informazioa izango du une oro, eta laguntza psikologikoa eta juridikoa eskainiko zaizkio.

Aneren irakasleak zuzendariarekin hitz egiten du; Barnahus etxearekin harremanetan jartzen da, eta Aneri eta haren amari joateko gomendatzen diote.

Familiako lagun batengandik abusua jasaten ari dela esaten dio Anek irakasleari.



Barnahusen, Anek pertsona gutxiagorekin partekatuko luke bere historia (lau arte) eta arreta espezializaturik jaso ahalko luke berehala.

GOMENDIOAK

Euskadin Barnahus eredia ezartzeko gomendioak

- **Euskadin Barnahus etxe baten gidaritzaren diseinatzea eta gauzatzea.** Gidaritzarako bi urte inguru beharko dira. Arreta handiz planifikatu beharko du Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politiken Arloak gidatutako lantalde batek; lantalde hori dagozkion administrazioetako eta autonomia- eta lurralde-erakundeetako (Justizia, Gizarte Zerbitzuak, Segurtasuna, Osasuna) ordezkariak osatuko dute. Era berean, gomendagarria da hezkuntza-sistema eta adituak lantalde horretan sartzea. Administrazio eta erakunde guztien babes eta konpromiso politiko eta teknikoak badu eta barruti judizial eta testuinguru onuragarri batean egiten bada soilik izango du arrakasta gidaritzak.
- Gidaritzari **ebaluazio-prozesu jarraitua eta zorrotza** egin beharko zaio. Barnahus ereduaren estalduraren, prozesuaren, emaitzen eta eraginaren azterketa, eta artatutako haur, nerabe eta familien gogobetetasun-maila eta ereduaren kalitate-estandarren betetze-maila barne hartuko ditu ebaluazio horrek. Egungo esku-hartze ereduarekin alderatuta Barnahus ezartzeak hobekuntzarik dakarren, hobekuntza horiek zehazki zein diren eta hori islatzen duten ebidentziak zehazteko aukera ematen duten adierazleak jaso beharko ditu.
- **Inplikaturako administrazio guztien artean akordio batera iristea**, erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko, probak ez bikoizteko eta Barnahus kalitate-estandarren erabilera ezartzeko; ereduaren kalitatea bermatu ahal izango da horrela.
- **Barnahus etxeak lurraldean ezartzeko ibilbide-orri bat** diseinatzea.
- **Barnahus eredia txertatzea Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko autonomia-erkidegoko legean**, eta, ondoren, araudia garatzea.
- **Hautzaroaren arloan espezializatutako epaitegiak** sortzea, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriaren aurrian Osorik Babesteari buruzko Legean aurreikusitakoak, eta horien eta Barnahus etxeen arteko koordinazioa sustatzea, epaitegi espezializatu horietako talde teknikoek talde mugikorren parte har dezaten eta Barnahus etxera joan daitezkeen aurrez eraturako frogarako.
- **Aurrez eraturako froga modu erregularrean**, behar diren berme prozesal guztiekin eta indarkeriaren biktima diren haur eta nerabe guztiei egitea ahalbidetzeko proposamen guztiak babestea.
- Abokatuen elkargoetan, **ofiziozko txanda bat sortzea, biktima diren haur eta nerabeen inguruan espezializatua**, Barnahus etxean espezializatutako abokatu baten presentzia ziurtatzeko.
- **PROMISE Barnahus sare europarrean** sartzea eta aktiboki parte hartzea, truke zientifikorako eta profesionalerako, eta lankidetzarako, truketarako eta etengabe eguneratzerako nazioarteko aliantzak eta sareak eraikitzeko.

Euskadin sexu-abusuaren biktima diren haur eta nerabeentzako arreta hobetzeko gomendioak

Detekzioa eta jakinarazpena sustatzea

- Biztanle guztiei zuzendutako kanpaina egonkorrak diseinatzea eta gauzatzea, Autonomia Erkidego osoan estaldura izango dutenak; behar bezain sendoak izango dira, gizartea sentsibilizatzeko, informatzeko eta haur eta nerabeenganako sexu-indarkeriaren detekzio eta jakinarazpen goiztiarra sustatzeko.
- Detekzio eta jakinarazpen goiztiarrerako protokoloak prestatzea eta ezartzea, haur, nerabe eta familiekin ohiko harremana duten zerbitzuei eta profesionaleri, eremu publikokoei nahiz pribatukoei, zuzenduta.
- Prebentzioko eta hezkuntza afektibo-sexualeko programen esparruan, jakinarazpenak sustatzeko jarduerak garatzea, haurrei eta nerabeei zuzenduta.
- Kanpaina eta jarduera horien eragina eta emaitzak ebaluatu ahal izateko sistemak ezartzea.
- Haurren eta nerabeen aurkako indarkeriaren gaia eta, bereziki, sexu-indarkeriarena horrelakoen detekzioan esku har dezaketen profesionalen unibertsitate-prestakuntzan sartzea.

Jakinarazpenen harrera eta hasierako arreta

- Jakinarazpenak jasotzeko jarduera-protokolo bat egitea, Autonomia Erkidego osorako bakarra, zeregin horretan esku hartzen duten sistema eta zerbitzu guztiak biltzen eta koordinatzen dituena.
- Protokoloa hedatzea, eta haren ezarpena sustatzea eta monitorizatzea.
- Haurren eta nerabeen biktimizazioari buruzko prestakuntza espezializatua bermatzea, zeregin horretan esku hartzen duten profesional guztientzat.

Haurren edo nerabearen miaketa

Miaketa medikoa

- Irizpide eta protokolo komun bat izatea, miaketa medikoa noiz egin jakiteko eta kasu akutuetan eta ez-akutuetan jarraitu beharreko prozedura zehazteko.
- Esku hartzen duten osasunaren arloko profesional guztien prestakuntza espezializatua bermatzea.
- Miaketa medikoa egiteko izendatutako ospitale guztietan, harrerarako eta miaketarako leku egokiak eta lasaiak daudela ziurtatzea.

Lekukotza jasotzea

- Lekukotza jasotzeko orduan parte hartzen duten psikologoentzako prestakuntza-plan bat abian jartzea, Barnahus ereduak zientifikoki baliozkotutako elkarrizketa-protokoloak aplikatzeko.
- Haurraren edo nerabearen lekukotza osa eta egiazta dezaketen eta erabaki judizialerako garrantzitsuak izan daitezkeen informazio-elementuak definitzea. Elementu horiek bereziki garrantzitsuak dira, kontakizun osoa edo behar bezain argia lortzea ezinezkoa den zailtasun bereziko kasuetan.

Haur, nerabe eta familiei lagun egitea eta laguntza psikologikoa ematea

- Biktima diren haur eta nerabeei eta haien familiei laguntza eta arreta psikologikoa ematen dieten profesionali zuzendutako prestakuntza-plan bat abian jartzea, eraginkortasunaren ebidentzia enpirikoa duten esku-hartzeetarako protokolo eta estrategietan trebatzeko.
- Haur eta Gazteen Osasun Mentaleko sarea zabaltzea eta indartzea, Euskadiko haur eta nerabe guztiei arreta unibertsala, arina, egokia eta kalitatezkoa emango zaiela bermatzeko.

Prozesu judiziala: salaketa, akusazioa eta epaiketa

- Instrukzio- eta epaiketa-faseetarako gehieneko denborak ezartzeko eta egungo epeak murrizteko behar diren lege-aldaketak sustatzea.
- Aurrez eraturako froga jasotzeko gehieneko epeak ezartzea.
- Epailleek eta magistratuek haurren eta gazteen sexu-biktimizazioari buruz eta gai horretako jardunbide egokiei buruz prestakuntza egokia izan dezaten sustatzea.
- Instrukzioko epaitegietan gertatzen diren artxibatzeen ehunekoa eta horien kausak ezagutzeko aukera ematen duten ikerketak egitea, bai eta indarkeriaren biktima diren haurrei eta nerabeei egin zaizkien aurrez eraturako frogan ehunekoa eta ahozko epaiketan deklaratu dutenena ere.
- Sistema judizialaren eta gizarte-zerbitzuen artean jarduteko irizpideak adostea, gurasoen artean gatazka-egoera handia den testuinguruetan egiten diren sexu-indarkeriako alegazioen aurrean.
- Sistema judizialaren eta beste sistema batzuen arteko koordinazio handiagoa ziurtatzea, frogak bikoiztea saihesteko.

SAVETHECHILDREN.ES



Save the Children